

Begira



ULMA

2006ko uztaila // 12 zk.

*parte-hartzea
berrikuntza
lankidetzeta
lehiakortasuna*

Mahai ingurua: Gure Balioak



aurrez aurre

José Antonio Ajuria
Lagun-Aroko Presidentea
"Espainiako pentsio sistematik arazoak izango ditu neurri zuzentzaileak hartzen ez badira"



gutarren argazkiak eta historiak

Xabier Rezabal
Madrilgo Ijitoen
Komunitatean bizitzen

Aurkibidea

12 zk. • 2006ko uztaila



3 > HIZPIDEA...: Balantze orokor positiboa. **4 > ALBISTEAK ETA GAUR EGUNGO GAIAK:** ULMA Hormigón Polímero negozioak %2,5eko maldadun lehen arteka merkaturatu du. ULMA Orga Jasotzaileak negozioari diploma eman dio EUSKALITek. Friorizek -25°C-ko berrikuntza logistikoarekin bat egin du, ULMA Handling Systems-ek garatutako biltegi automatiko baten bidez. **14 > AURREZ AURRE:** José Antonio Ajuria, Lagun-Aroko lehendakaria. **16 > MAHAI INGURUA:** Kooperatibaren baliok eztabaidagai. **20 > ERREPORTAJEA:** ULMA Taldeak 229 lanpostu berri sortu zituen 2005ean. **22 > ALBISTE OSASUN-GARRIAK:** Osasun programa - Ergonomia eskola. **23 > GUTARREN ARGAZKIAK ETA HISTORIAK:** Xabier Rezabal, ijitoekin bizitzen. **24 > GURE KONPROMISOA:** ULMA Taldea Mundukide Fundazioaren babesle. **26 > ZER DERITZOZU?** **28 > ASTEBURURAKO TXANGOAK:** Kataberako meategiko bideak. **29 > AGENDA ETA IRADOKIZUNAK.**

Amaitu dira kooperatibetako Batzar Nagusiak, baita Taldekoa ere; eta datuak oro har aztertuta, esan dezakegu 2005a ekitaldi oso ona izan dela ULMA Taldearentzat; izan ere, enpresa ikuspegitik urrats handiak egin dira eta, gainera, ULMA Taldeko Antolakuntza Proiektuan (POGU III) egindako aldaketen onarpenarekin, bultzada erraldoia eman dugu Taldea sendotzeko bidean.

Enpresa arloan Negozio Bolumen finkatuaren hazkunde geldiezinak jarraitzen du; horrela, 508 milioi eurekin, lehen aldiz 500 milioiko kopuru mitikoa gainditu dugu. Nazioarteko hedapena da hazkunde horren oinarria, eta horri gehitu behar zaio barne merkatuaren lan eta portaera

dizkiegu, etengabe berrituko direnak, eta garrantzitsuen da hemendik 10, 20, eta 40 urtera gure enpresa taldea bere dinamismo etengabeagatik eta egindako lan onagatik kontuan hartzea.

Emaitzak ere izandako bilakaerarekin bat etorri dira. ULMA Taldeak, bere osotasunean, %18ko igoera izan du emaitzetan, iazko ekitaldiarekin alderatuz gero.

Beste urtebetez, egun hauetan gure Balantze Soziala ere egiten dugu: zenbaki honetan azaldu dugu eta, adierazle nagusiei dagokienez, duela gutxi onartu da gure Batzar Nagusietan.

Enpleguaren bilakaera orokorrak adierazle inbidiagarriak erakusten dizkigu:

desabantailak dituen. Gure Negozioetako etorkizunaren alde borrokatu eta lan egin behar dugu, baina ezin ahantz dezakegu Taldeko proiektu bateratu batean gaudela (elkartasun eta konpromiso maila bat izatea, gauza batzuk partekatzea eskatzen duena), oinarria gure negozioak aurrera ateratzea izan behar duen arren. Badakigu horrek berekin dakarrela oreka zailean lan egitea, baina bide horretatik jarraituko dugu, orain arte bere emaitzak eman dizkigulako.



Balantze orokor positiboa

JOSÉ LUIS MADINAGOITIA. ULMA Taldeko Lehendakaria.

ezin hobea; izan ere, atzeraldian sartu beharrean, indartsu jarraitzen dugu sektore gehienetan.

Atzera begiratuz gero, eta gure negozioetako nazioartekotze prozesua abiarazteko uzkur samar jokatu bagenuen ere, uste dut tren hau garaiz hartu dugula eta abiadura hartzen eta globalizazioaren lasterketa horretan lekua hartzen jakin dugula (globalizazioarena, gustatu edo ez gustatu, gure etorkizuna markatuko duen lasterketa da). Badakigu oraindik ibilbide luzea dugula egiteko, baina lasterketa honetan aurrea hartzen ez badugu, etorkizunean konponbide zaila izan dezakeen egoeran aurki gaitzke.

Iraupen luzeko lasterketa da gurea: lekua hartu eta horri eutsi behar diogu eta, ziurrenik, etapa batzuetan sufritu egin beharko dugu; baina urruntasunera egin behar dugu so, gure proiektua ezin daiteke/ ez da irabaziak epe laburrera emango duen proiektua izan behar; proiektuan egun parte hartzen dugunok ondorengoei oinarri sendoak dituzten enpresak utzi behar

iazko ekitaldian batez besteko enplegua 2.865 lanpostukoa izan bazen, aurten 3.094 lanpostukoa izan da eta horrek esan nahi du 229 lanpostu gehiago ditugula batez beste. 2005eko abenduaren 31n plantilla 3.150 pertsonak osatzen zuten. Kooperatiben enplegu hazkundera ere urrats handia eman dugu, izan ere kooperatibetako bazkideen kopurua 106 pertsona gehiagok osatzen dute. Eta hazkunde garai hauetan kooperatibetan enplegua sortzeko gure barne helburuak lortzeko zailtasunak izan arren –are zailagoa enplegu hazkunde hori atzerriko filialetan ematen denean–, gure helburuak lortzeko ahaleginean jarraitu behar dugu.

2005eko ekitaldiaren errepasso honetan ez nuke aipatu gabe utzi nahi ULMA Taldeko Antolakuntza Proiektu Berria (POGU III ezagutzen duguna) onartzeak eragin duen urrats handia. Urrats garrantzitsua izan da Taldearen kohesioari begira, eta etorkizunean gure Taldea kontzientziazteko eta sendotzeko oso baliagarria izango da. Eskualdeko Taldea gara, bere abantailak eta


“Globalizazioaren lasterketan lekua hartzen jakin dugu eta korrikaldi honek, gustatu edo ez gustatu, gure etorkizuna markatuko du”

ULMA Hormigón Polímero negozioak % 2,5eko maldadun lehen arteka merkaturatu du



ULMA Hormigón Polímero negozioak % 2,5eko malda eranstean duen lehen arteka aurkeztu du, eta sektoreak eskatzen dituen kalitate arau zorrotzenen barnean garatu du, UNE-EN 1433 arauaren barnean, hain zuzen. ULMAko Ingeniaritza Departamentuak, proiektua sortzen den unetik obran erabat gauzatu arte aholkularitza osoa ematen duen departamentu horrek, garatu du soluzio berri hori. Kasu zehatz honetan, kanalizazio eta isurbideetako zikinkeria arazoei eta mantentze lanetarako irtenbidea aurkitu behar zitzairen. Ondo aztertu ondoren pentsatu zen, edukiera hidrauliko handiagoa izango zuen arteka batek ekar dezakeela irtenbidea, beroni % 2,5eko malda ezarri gero. Maldadun arteka honen bidez, instalazioen mantentze kostuetan asko aurrezteko lortu da, jada ia ez baita beharrezkoa pertsonen esku hartzea. Arteketatik jausten den urak berarekin eramaten ditu zuzenean hondoa gelditzen diren elementuak. Hauek dira arteka horren abantaila nagusiak: duen edukiera hidraulikoa, erantsi zaion maldari esker bere kabuz garbitzeko duen gaitasuna eta mantentze lanak erraztea. Irudietan, Bartzelonako Ferial Montjuïc 2 azokako aretoa erabilitako maldadun arteka.

ULMA Construcción



ULMA CONSTRUCCIÓN NEGOTIOAREN MURTZIAKO ORDEZKARITZA INAUGURATU DA. ULMA Construcción negozioaren Murtziako Ordezkaritzaren instalazio berriak ekainaren 15ean inauguratu ziren ofizialki. Molina de Segurako La Serreta Industrialdean daude eraikinak. Ekitaldian, egun horren oroigarri izango zen plaka jendaurrean erakutsi zen, eta Kontseilu Errektoreko kide Ernesto Maestrek taldearentzat eta egin duen ibilbidearentzat esker oneko hitzak izan zituen; Pilar Arévalok, berriz, bere izenean eta talde osoaren izenean, bertan parte hartu zuelako eskerrak eman nahi izan zizkion Ernestori. Instalazio berriek bulegoen eremu bat eta 3.000 m²-ko biltegi bat dituzte, horietatik 640 m² teilatupean.

ULMA Agrícola negozioak berotegien kontrolerako GSM sistema bat garatu du

MicroClimatic System automatismoen gama osatu berri du ULMA Agrícolak, CERES deritzon GSM sistemarekin; bertako I+G+b departamentuan garatu da oso-osorik. Produktu berri horrekin, berotegietarako kontrol klimatikoko erregulatzaileren gamari elementu berri bat erantsi dio, urrutitik zaindu, kontrolatu eta gainbegiratzeko agintearen bidez. Sistema horrek telefono mugikorren zerrenda bat du, eta erabiltzaileak berak konfiguratu dezake zerrenda hori; berorietatik kontsultak eta maniobrak egin daitezke, eta instalazioan zerbait gertatuz gero, abisua jasotzen da, SMS xume baten bidez. Erregulazio klimatikoari dagokionez, ULMAren bezeroek garrantzi handia ematen dioten ezaugarri bat ekipo horien pertsonalizazioa da, berotegi bakoitzaren behar eta ezaugarrietara egokitzen baitira, eta eskakizun maila gorenei ere ondo erantzuten diete. CERES sistema honi esker, edozein unetan eta, areago, edonondik, instalazioa nola dagoen jakin daiteke.

ULMA Agrícola



CERES SISTEMA GSM

ULMA Forja

ULMA Forjak garrantzi handiko kontratua sinatu du PdVSA etxearekin

ULMA Forjak, Venezuelan duen filialaren bidez, 2,1 milioi euroko balioa duen kontratua sinatu du PdVSA etxearekin (Petróleos de Venezuela S.A.), Venezuelako findegi guztiak bridez hornitzeko. Munduko petrolio ekoizlerik handienetakoa da berau. Venezuelako filialarentzako mugarri esanguratsua izan da, orain arte Estatuaren enpresa horretako zenbait findegi hornitzeko eskaera partzial batzuk baino ez baitzituen lortu; baina planta guztiak urtero bridez hornitzeko lortu den akordioak argi erakutsi du enpresa horrek konfiantza osoa jarri duela filialaren jardunbidean, eta baita ULMAren produktuaren kalitatean ere. Azken bi urteetan filial honek izan duen jarduera ezin hobea azpimarratu behar da: iazko urtean errekorra hautsi zuen, 3,6 milioi euroko fakturazioa lortu baitzuen, eta 2006rako % 20 haziko dela aurreikusi da: 4,3 milioi

eurotara iritsiko litzateke, beraz. Argazkian, filialeko kideak, Pablo Elexgaray (Gerentea), eta Isgrecnic La Rosa eta Lana Brigante.



ULMA Handling Systems



IKLOG: ULMA HANDLING SYSTEMS NEGOZIOAREN SOLUZIO MALGU ETA MODULARRA.

ULMA Handling Systems negozioko Supply Chain Software (SCS) dibisioak sistema logistikoak kudeatzeko bere softwarea garatu du. Negozio honek berak egin duen informazio sistema bat da, IK LOG izena daramana, eta Pick to Light arloan soluzio malgu eta modularrak, irratimaiztasun sistemen soluzioak, biltegien kudeaketa integralerako soluzioak eta kokapen eta identifikaziorako soluzioak eskaintzeko diseinatu da, besteak beste. SIL 2006 azokako eraikinean eman zuen ezagutzera ULMA Handling Systems negozioak kate logistikorako informazio sistema berritzaile hau.

ULMA Orga Jasotzaileak

ULMA Orga Jasotzaileak zama luzeetarako soluziorik onena aurkeztu zuen Vetecon

ULMA Orga Jasotzaileak Madrilgo Veteco Azokan, Leihio eta Itxiera Beiratzatuen Nazioarteko Aretoan, neurriagatik edo hauskortasunagatik erabiltzeko zailak diren zama mugitzeko soluzioa aurkeztu zuen, alboko zametarako HUBTEX eskorgen gamaren bidez. Ohiko eskorga kontrapisatuen ordez alboko zametarako HUBTEX eskorgak erabiliz, biltegiaren espazioaren edukiera handitu egiten da (% 50), eta horixe da aukerarik onena xede horretarako; izan ere, ez du biratzeko aparteko tokirik behar, eta eskorgak bera baino zertxobait zabalagoa den korridoreetan ere lan egin dezake. HUBTEX eskorgen aldakortasunari esker, industriako hainbat sektoretan ondo baino hobeto moldatzen da: zuraren sektorean, aluminioan, metal edo plastikoa, PVC arloan edo altzairu profilerian. ULMAko erakustokira jo zutenek honako eskorga eta makina hauen guztien erabilgarritasuna eta eraginkortasuna argi eta garbi ikusi ahal izan zituzten: Alboko Zametarako Lau Noranzkotako 3050 Eskorgak, trakzioa hiru gurpiletan dutenak, korrante alternoko Alboko Zametarako Orga Altxatzaile Multidirekzionala, eta korrante alternoko Pilatzaile Multidirekzionala.



ULMA Packaging

ULMA PACKAGING NEGOZIOAK, BESTE 7 KONPAINIEKIN BATERA, ENBALATZEKO HORNIKETA KATEAREN SARI HOLANDARRA JASO DU. Nederlandse Verpakingsketen Prijs saria endibia freskoetarako flow wrap 500 g-ko ontzi batekin lortu dute, ontzi horri esker salmentek % 20 egin baitute gora. Enbalajeen Sari Holandarren zeremonian aurkeztu zen ontzia, eta sariak merkatu holandarrean kontzeptu "berri" bat merkaturatzeko sektoreko konpainia desberdinen lankidetzaren arrakastatsua saritzen du. Holandako bost argitalpen espezializatuak Editore Buruek osatutako epaimahaiak Amcor Flexibles, Quality Growers Holland, The Greenery, Dekka-Markt, Visser Media Producties, Creative Formula, Ulma Packaging eta Espera Nederland aukeratu zituen irabazletzat, endibiaren merkatua suspertzeko parte hartu izanagatik. Amcor Flexibles Ledbury konpainiak Erresuma Batuan ekoiztutako, 25 mikrako OPP-ko flow wrap diseinu irabazleak, flexografian inprimatutakoak eta Amcor P-Plus-en tratatutakoak, atmosfera egokitu zuzena bermatzen du, biltegiatutako produktuaren iraupena ahal beste luzatzeko. Lurrunaren kontrako sistema batekin endibiaren ikusgarritasuna handitzen du salmenta puntuan. Epaileek azken urteetan endibiaren salmentak gainbehera izan duela onartu zuten, eta konpainia hauen lankidetzari esker, endibietarako ontzien formatu berria lortu da, kontsumitzaileen aldetik oso harrera ona izan duena eta merkatura irten zenetik salmenten igoera nabarmena lortu duena.



Holandako ULMA Packaging negozioko Alex Hofstee, argazkiaren erdian.

BA AL ZENEKIEN...

ULMA Forja negoziokoak, merkataritza hedapenerako politikari jarriki, duela gutxi Kazakhstan-etik egindako lehenengo eskaera lortu du. Eskaera esleitzeko negoziazio luze eta zailen ondoren, azkenean ados jarri dira, eta etorkizunera begira ere harremanarekin jarraitzeko itxaropena dute. Kazakhstan 15 milioi biztanleko herrialdea da, eta Errusia, Txina, Turkmenistan, Uzbekistan, Kirgizistan eta Kaspiar Itsasoa ditu inguruan. Petrolio eta gas baliabide garrantzitsuak ditu, eta sektore horietan aurkitu dute hain zuzen ere aplikazioa ULMA Forja negozioko produktuek. Herrialde honekin, ULMA Forja negozioko produktuak 38 herrialdeetan ezarri dira, produkzioaren % 95 baino gehiago esportatuz, eta horrek argi eta garbi adierazten du negozio honen izaera esportatzailea.

ULMA Hormigón Polímero

"Artea" fatxada aireztatuetan: mugarik gabeko aukerak

ULMA Hormigón Polímerok fatxada aireztatu berritzaile baten diseinua aurkeztu du: bai materialak eta bai sistemak malgutasun eta aukera ugari eskaintzen dituzte. Madrilgo San Sebastián de los Reyes herrian, Prestakuntzako Udal Zentroaren fatxada estali da. Obra horren berezitasun nagusia hau da: eraikinaren egitura nagusiaren gainean bolumena duten kuboak ezarri dira, plaken sostengu den egitura osagarri baten bidez, eta 15 cm-tik 20 cm-ra bitarteko hegada ahalbideratzen du horrek, kuboaren ezarrieraren arabera. "Fatxadaren gainean kuboak ezartzeko ideia Alberto Martín de Lucio arkitektoak eta Luis Feito eskultore eta pintoreak, El Paso Taldearen fundatzaile eta Espainiako egungo artearen barneko pertsonaia garrantzitsu denak, taldean garatutako lanetik sortu zen." Prestakuntzako Udal Zentroa batez ere gizarteratzeko arazoak dituzten gazteei zuzentzen zaie, eta lanbide orientazio bat ematen ahalegintzen dira bertan. San Sebastián de los Reyesko Udalaren menpe dago, eta Madrilgo Autonomia Erkidegoak ere parte hartu du bertan.



ULMA Orga Jasotzaileak



ULMA Orga Jasotzaileak soluzio logistiko ugariko bi estand jarri zituen SILen

Bartzelonan, duela gutxi egin den SIL 2006 azokan, ULMA Orga Jasotzaileak Mitsubishi eta HUBTEX eredueta orga jasotzaileen gama osoa aurkeztu zuen; salgaiak jaso, garraiatu eta igortzeko, pilotzeko, biltegitratzeko edo eskaerak prestatzeko prozesuetako lanak eta aplikazioak betetzen dituzten ekipoak dira, eta zamak eroso, eraginkortasunez eta modu errentagarrian mugitzeko aukera ematen dute guztiek ere. Merkatuaren beharrei erantzuna eman nahian, ULMAk bi estand prestatu zituen soluzio logistiko desberdinak aurkezteko. Estand batean, ULMAk erretraktileen, pilotzaileen, eskabideak jasotzekoen, transpaleta elektriko eta barrurako nahiz kanporako Mitsubishi kontrapisatu termiko eta elektrikoaren gama zabala erakutsi zuen. ULMAk aurkeztu zituen berrikuntzen artean, bi hauek nabarmendu ziren: PBV20-25NH plataformako Transpaleta Elektrikoa, 2 tonatik 2,5era bitarteko zama-edukiera duena, eta korrante alternoko eta bi eta hiru gurpileko Kontrapisatuaren N Serie berria; bi berrikuntza hauek interes handia piztu zuten bisitarien artean. Alemaniako HUBTEX marka famatuko alboko zamatarako eskorgak erakustera zuzendu zen estanda hainbat arlotan (zura, metala, aluminioa edo plastikoa) lan egiten duten enpresetako ordezkariak bisitatu zuten; izan ere, guztiek dute ezaugarri komun bat: neurri luzeetako karga bereziak erabili behar izaten dituzte, eta biltegiari ahalik eta probetxu handiena eman behar izaten diote. HUBTEX gama noranzko biko ereduak, lau noranzkotakoek, multidirekzionalek, erretraktilek eta pilotzaileek osatzen dute, eta korrante alternoko motor termiko eta elektrikoak ere badituzte. Aurten, bi estanden bidez, ULMA Orga Jasotzaileak argi eta garbi erakutsi du soluzio logistikoen aukera zabala duela, hainbat sektorek, inguruk, aplikazioek edo zama unitatek planteatutako beharrei erantzuteko.

ULMA Handling Systems


ULMA HANDLING SYSTEMS: BERRIKUNTZA LOGISTIKOAREN ERAKUSLEIHO, SIL 2006 AZOKAN.

ULMA Handling Systems negozioak SIL 2006 azokan izan duen esku hartzea hiru hitz hauek laburtzen dute: Berrikuntza, Esperientzia eta Teknologia. Kate logistikorako sailkapen automatikoko sistemetan, biltegitratze automatikoan, eskaeren prestatetan eta informazio sistemetan soluzioak eskaintzea izan da ingeniarietza logistikoa aurten aurkeztu dituen berrikuntza nagusiak. Edizio honetan, ULMA Handling Systems-en estandaren erakargarri nagusia zama neurri guztietan lan egiteko eta zama horiek biltegitratzeko diseinatutako biltegitratze sistema automatikoa izan da. Sistema berritzailea da, abiadura eta mugimendu-ahalmenari dagokienez ezagutgarri bereziak dituen, eta horregatik, Fabrikazio eta Banaketa Automatikoko sailletarako soluzio bikainak eskaintzen ditu. Halaber, ULMA Handling Systems negozioak kate logistikorako bere informazio sistema berritzailea erakutsi du: IK LOG markarekin bataiatu du. ULMAk garatutako Sailkapen Automatikoko sistema ezagunak eta Pick To Light teknologia ere parte hartu dute berrikuntza logistikoa arloan erakusleho izugarria den azoka honetan.



Europako hirugarren saltoki gune handienaren eraikuntzan parte hartzen ari da ULMA

Nevada saltoki gunea Armillan dago (Granada), eta Europako hirugarren saltoki gune handiena da; beronen eraikuntzan parte hartzen ari da ULMA. Apirilean, obrak bisitatu ziren, eta ULMA Construcción negoziotik Antonio Pérez (Hegoaldeko Eskualdeko Zuzendaria), muntaia arduradunak, eskaeren horniduren arduradunak eta Hegoaldeko Eskualdeko aplikazio eta operazio logistikoe-tako teknikariak izan ziren bertan; halaber, bertan izan ziren ULMA Construcción etxearen Jaengo ordezkari den Guillermo Garcia Muñoz enpresako langileak ere. Obran, 205.000 m²-ko azalera lauza erabili da, eta honela banatu da azalera hori: 120.000 m²-tan, 4 m-ko altueran, kubetekiko lauza arindua, eta 85.000 m²-ko azalera, hainbat altueratan (4,9 eta 5,8 metrora), forja lan arindua. Obra egin ahal izateko, RECUB N-14 motako 11.000 m² enkofratu berreskuragarri eman ziren, eta baita SP eskorak ere; eta 8.500 m²-tarako VR Mahaiak eman ziren, ALUPROP eskorekin eta txarrantxa-tzeekin. Emasa enpresa da obraren sustatzaile eta eraikitzailea, eta exekuzioaren arduradunak Estructuras Reina Maria eta Tuyser dira.



Zalantzarik gabe, Nevada saltoki gunea garrantzi handiko obra da ULMA Construcción etxearentzat, Europako hirugarren handiena baita.

ULMA FORJA DUSSELDORF-EKO TUBE & WIRE AZOKAN. ULMA Forja, sektore petrokimikoan bridetan eta karbono altzairuzko forja lanetan mundu mailan lider den negozioa, Dusseldorf-eko TUBE & WIRE azokan izan da, apirilaren 24tik 28ra bitartean. Bezeroekin merkataritza harremanak estutzeko ez ezik, bezeroei eta kolaboratzaileei ULMA Forjak egin dituen inbertsioak erakusteko aukera eman dio azoka honek. Irudian, ULMAren estanda Tube azokan.



Oilasko bularkietarako ULMA Packaging-en Multipack banakako bilkinek oso harrera ona izan dute Food Marketing Institute 2006 azokan

Aplikazioa Goldengo (Colorado) Coleman Natural Foods etxearen Multipack lineari dagokio, banaka biltzen diren oilasko bularkiei, hain zuzen. Askotariko pisua izan dezakete paketeek; zigitua ezar dakioken pakete horietako bakoitzak sei pieza ditu, 4 ontzatik 6ra bitartekoak, eta banaka, hutsean bilduta daude; bakoitzak erabiltzeko edo izozteko kode bat du, dataren arabera. Kanpoko poltsa estrapatuta egiten da, eta zipper erako bihurtzen da. Presiopeko sentsibilitatearen bidez inprimatzen dira etiketak, sei koloretan.

Barruko bilkinak bete eta hutsean zigitatzen dira, minutuko 30 pakete, eta kontsumitzaileei etxean izozteko aukera ematen zaie horrela, Rob Siegalek, produktu berrietako marketing zuzendariak, adierazi duenez: *“Formatu honek produktua izozte erredukatik babesten du, eta produktua zatika bildu beharra saihesten du.”*



ULMA Hormigón Polímero



ULMA HORMIGÓN POLÍMERO NEGOZIOAK TXILERA ERAIKUNTZARAKO PIEZAK ESPORTATZEKO LEHENENGO ESKAERA LORTU DU.

Urte honetako ekainean gertaera garrantzitsu bat azpimarratu behar da Hormigón Polímero negozioan: eraikuntzarako aurrefabrikatutako piezen lehenengo eskaera, zehazki, Txileko Santiagon luxuzko eraikuntza proiektu garrantzitsu baterako. Boticelli eraikuntza da, ALMAGRO eraikuntza enpresak sustatutakoa eta eraikitakoa. ULMA Hormigón Polímero negozioak 1997. urtean hasi zituen lehenengo esportazioak. Hasiera batean nazioarteko eskaera guztiak drainatze arteketara zuzentzen ziren nagusiki, Portugalera, Txilera eta Ziprera. Eraikuntza lerroaren nazioarteko salmentarekin hasteko egiten ari diren ahaleginak esanguratsuak dira, eta emaitzak ikusten hasi dira. Iaz Txileko Santiagon hitzaldiak eman zituzten 170 arkitektoz osatutako talde baten aurrean, materialaren ezaugarriei nahiz eraikuntzarako aurrefabrikatutako materialen abantaileri buruz. Duela gutxi, herrialde horretako Unibertsitateko Arkitekturako fakultatean mintegiak antolatzeko asmoa dutela jakin du ULMAK. Azkenik, une honetan ULMA drainatze arteken lehen eskaera bat negoziatzen ari da Pertiako golkorako (Qatar).

ULMA Orga Jasotzaileak

ULMA Orga Jasotzaileak negoziari diploma eman dio EUSKALITek



ULMA Orga Jasotzaileak Euskalit-ek saritutako enpresetako bat izan zen, eta Erabateko Kalitaterantz/Bikaintasunerantz Egiteko Konpromiso Diploma jaso zuen. Diploma hau Kudeaketaren Bikaintasunean gutxienez EFQM Ereduaren bi autoebaluazio egin dituzten eta "Euskaliteko ebaluatzaileen Klubeko" hiru ebaluatzailek egindako kanpo konparaketa gainditzen duten erakundeek jasotzen dute. Ebaluatzaileen taldeak bi egun igaro zituen ULMA Orga Jasotzaileak Oñatin dituen instalazioetan, eta Erabateko Kalitatearen / Bikaintasunaren printzipioen lorpenen eta horien aplikazio mailaren diagnostia egin zuen, kudeaketa praktiken bidez. Erabateko Kalitatearen printzipioek oinarri hauek dituzte: "emaitzak xede izatea", "bezeroa xede izatea", "aitzindarritza eta koherentzia", "prozesu eta egitateen araberako kudeaketa", "pertsonek garapena eta parte-hartzea", "etengabe ikasi, berritu eta hobetzea", "aliantzak egitea" eta "erantzukizun soziala". Diplomak Bilboko Euskalduna Jauregian banatu ziren, eta Fran Aspiatzuk, CEDEKeko (Bizkaiko enpresarien elkarte) Idazkari Nagusiak eta Miguel Laspiur-ek, CONFEBASKeko presidentek eta EUSKALITeko presidenteordeak, zuzendu zuten.

BA AL ZENEKIEN...

ULMA Taldeak bere komunikazio euskarri berriak euskaraz kaleratu ditu lehenengo aldiz. Ekainetik, korporazioaren katalogo eta bideo berriak euskaraz daude.





ULMA Agrícola negozioak 22.5 ha-ko instalazio bat ezarri du Italiako hegoaldean

Joan den ekainean amaitu zen 2005. urte hasieran hornitzen hasi zen instalazio honen muntaketa. Guztira berotegien 22.5 ha dira, eta horietatik 22 ha arrosen landaketara zuzendu dira, eta gainerakoa biltegiarako instalazio osagarriarako eta klimaren eta ureztatzearen kontrol sistema zentralizaturako da. Instalazioak 9.6 metroko zabalera eta 85 metroko luzera duten nabe gotikoek osatzen dute, eta 4 metroko altuera dute erretenaren azpian. Estaldura perimetrala PVCkoa da, sabaia kamera puzgarriko plastiko bikoitzekoa (plastikozko geruzetako batek arrosen ekoizpenerako sulfuroaren aurkako tratamendua du). Proiektu honek berotegira hezetasuna eskaintzeko cooling sistema ere barne hartzen du, eta

baita itzal egiteko kanpoko sarearen finkapena. Arrosak landatzera zuzendutako instalazioak bereizitako 5 modulutan zatituta daude, eta modulu bakoitzak 4 ha ditu gutxi gorabehera; modulu bakoitzean, bestalde, hainbat zona klimatiko daude, aldagai klimatologikoak (tenperatura, hezetasuna, etab.) kontrolatzeko. Modulu guztiak erdiko korridore baten bitartez komunikatuta daude. Korridoreak azalera osoa luzetara zeharkatzen du, eta ate automatikoak ezarri dira bertan, sakagailua eta fotozelula dutenak. Italiako hegoaldeko instalazio hau ULMA Agrícola negozioak orain arte amaitu duen instalazio handienetako bat da, bai neurriarengatik eta baita bertan instalatutako kontrol ekipamenduengatik ere.

BA AL ZENEKIEN...

ULMA Taldeak Ezagutzaren Klusterraren 10. urtemugako ospakizunetan parte hartu du. Zehazki, ekainaren 15ean Barakaldoko Bilbao Exhibition Centre-an 10. urtemuga ospatzeko egindako ekintzen artean, ULMA Taldeak honako erakusketa honetan hartu zuen parte: *'Enpresa kudeaketa Euskadin: 10 urte sareko berrikuntza erraztuz'*. Egun osoan bisitatu ahal izan zen erakusketa honen bitartez, ULMAk kudeaketan berrikuntzak ezartzeko gaitasuna erakutsi zuen, bai Ezagutzaren Klusterreko bazkideen sarearen aurrean, bai ekitaldian parte hartu zuten eta bazkide ez diren beste erakunde batzuen aurrean.

ULMA Hormigón Polímero

ULMA Hormigón Polímero negozioak merkatu katalanaren alde egin du bezeroa asetzeko politikan

Katalunia etengabeko bilakaera duen merkatua da, eta gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da ULMA Hormigón Polímero negozioan, nagusiki, hiru faktore hauen ondorioz: merkatu honek hazkunde jarraitua eta konstantea du; horrez gain, merkatu berritzailea da, eta berrikuntzen eta produktu berriak garatzeko eskaeren ehuneko handiena bertatik iristen da (adibide moduan, hormigoi polimeroan egindako eta % 2.5eko malda duen lehenengo arteka dugu); eta azkenik, entzute handia izan duten lanak egiten diren merkatua da, Kulturen Foruma edo duela gutxi Montjuïc inguruan egindako Bartzelonako Azokaren handiagotzea, adibidez. Merkatuko beharrei erantzuteko eta bezeroengana hurbiltzeko, ULMA Hormigón Polímero

negozioak katalanez argitaratu berri du Kanalizaziorako Dossier Teknikoa. Horregatik, eta zerbitzu hobea ematea eta bezeroenganako jarrera hurbila eta iritsi-erraza izatea dituelako helburu, ULMA Hormigón Polímero negozioak hala eskatzen duten merkatuetara bere komunikazio euskarriak egokitzeko ahalegina egiten jarraituko du.



ULMA Construcción

10 urte bete dira ULMA Construcción-en filiala Brasilen ezarri zenetik



ULMA Construcción negozioak Brasilen filiala jartzeko lehenengo harremanak 1994. urteko urrian hasi ziren, eta Elcio Almeida eta Cristóbal Álvarez izan ziren harreman horren lehenengo bitartekoak. 1995. urteko irailean ULMA Construcción negozioko zuzendaritza Brasilen izan zen. Data horretan enpresa bateratu bat sortzeko asmoen gutuna sinatu zen; parte hartzaileak Acceso, Elcio Almeida eta Luiz Corrairen konpainia, eta ULMA C y E, S. Coop. ziren. 1996. urteko azaroan sinatu zen konpainia berriaren sozietate kontratua, eta lehenengo helbide soziala Elcioren etxe partikularra izan zen. Une horretatik aurrera gauzak asko aldatu ziren. Gaur egun, ULMA Construcción merkatuko burua da Brasilen –São Pauloko eskualdean– eraikuntzaren merkatuan, eta instalazio propioak, 20.000m²-ko azalerakoak, ditu. Porto Alegre (herrialdearen hegoaldean) eta Brasilia –hiriburu federala– hirietan ere ordezkariak ditu, eta horrez gain, Rio de Janeiro, Salvador, Florianópolis, Curitiba eta Goiania hirietan ere ordezkariak ditu. ULMAk enpresa nagusiaren bokazio berbera du Brasilen; liderraz izatea, eta horregatik, Kudeaketa Plan handizalea du, fakturazioan % 46ko hazkundera lortu nahi duena. Brasilgo ULMA Construcción-eko taldea gaztea da, ahalmen handikoa, eta zalantzarik gabe,

merkatuan lortu nahi duten parte-hartzea lortuko dute, bezeroen asetasunaren bitartez. Elcio José de Almeidak, Brasilgo ULMA Construcción negozioren Zuzendari Nagusiak, lerro hauen bitartez bere ekipoa eta ULMAren proiektua –Fôrmás e Escoramentos Ltda.– Brasilen aurrera ateratzen lagundu duten guztiak zoriondu nahi ditu eta eskerrak eman nahi dizkie. Irudian, ezkerretik eskuinera, Cristóbal Álvarez, Luís Correa, Hélvio Valença, José Luís Madinagoitia, Elcio Almeida eta Carmelo Bilbao zuzendaritzak Brasilera egindako lehenengo bisitan, 1995. urtean.



ULMA Orga Jasotzaileak



ULMA ORGA JASOTZAILEEN TOURRA. Seigarren urtez, ULMA Orga Jasotzaileetako kirolariek Oñatitik Aloñara arteko bizikleta igoera antolatu dute. Aurten 25 pertsona elkartu ziren, eta egun osoan bero izugarria egin zuen arren, kirolari bikain hauek igoeraz gozatu ahal izan zuten. Ekinaldiaren ondoren, ULMA Orga Jasotzaileko txirringulariek eta ibiltariek merezitako saria jaso zuten, Aloñako inguru zoragarrian bazkari ederra egin baitzuten. Urtero legez, parte-hartzaileetako bat txapeldun izendatu zuten, eta aurten Iñigo Aranburuk jaso zuen lankideen omenaldi gozoa.

Frioriz-ek -25°C -ko berrikuntza logistikoarekin bat egin du, ULMA Handling Systems-ek garatutako biltegi automatiko baten bidez

Frioriz logistikako enpresa galziarrak arrain izoztuak banatzeko sektorearen ohiturak hautsi ditu, eta ULMA Handling Systems negozioak garatutako biltegiratze automatikorako sistema bat erabiltzen hasi da. Frioriz enpresa berria da, elikagai izoztuen sektoreko enpresei barneko nahiz kanpoko euskarri logistikoa emateko sortua. Enpresa horren helburu nagusia, bezeroei behin betiko irtenbideak, elikaduraren esparruko produktuen mugimenduetarekin eta biltegiratzearekin lotutako ingurune komun batetik koordinatutakoak, eskaintzeko zirkuitu logistiko integrala ixtea da. Frioriz enpresak hainbat arrazoi izan zituen automatizazio logistikoa ULMA Handling Systems negozioaren esku uzteko. Lehenik eta behin, biltegiratzeko sistemen definizio prozesuan, enpresako arduradunek antzeko instalazio berriak ikusteko aukera izan zuten, eta sistema robotizatu modernoaren bidez lortutako ekoizpen maila handiak egiaztatu ahal izan zituzten. "Sektorean –dio Manuel Casal konpainiako zuzendariak– oso gogor lan egin da sistema automatikoak hobetzeko eta instalazioek zituzten oztopo handienei (moteltasuna, zailtasuna eta mantentze lanen maiztasuna, geldialdien maila, matxurak) aurre egiteko." Behin konpainiak sistema automatizatu aukeratu ondoren, ULMA Handling Systems negozioarekin aholkularitza prozesu bati ekin

zitzaion, eta helburu nagusia hainbat gai definitzea izan zen: diseinua, zein ekipo mota erabili, lan abiadurak edo sortu ahal izango ziren inbutuen identifikazioa. Horrez gain, ULMA Handling Systems negozioaren laguntzarekin, hainbat motatako instalazio robotizatuak bisitatu ziren, eta horri esker Frioriz enpresak planteatutako helburuetara (azkartasuna, fidagarritasuna, kostua) egokitutako azken instalazioaren egituraketaren behin betiko ondorioak atera ahal izan ziren. Frioriz enpresaren instalazio logistikoak ez datoz bat merkatuan produktu izoztuen barne logistika antolatzeko modu tradizionalarekin; azken horretan bolumenen okupaziorik handiena bilatzen zen. Baina horrek salgaiaren kudeaketa abiadura murrizten zuen, eta produktu bat ateratzeko egin beharreko mugimenduak handitzen ziren, garraioari emandako zerbitzua okertuz. Biltegi honek Galiziako batez bestekoaren gainetik dagoen tonako biltegiratze bolumena du, paletak errazago eskura baitaitezke sistema honekin. Espazioaren planteamendu honi esker, Frioriz enpresak barne prozesuaren batez besteko denborak murriztu ahal izango ditu, eta beraz, itxaroteko, kamioiak zamatzeko nahiz kargak jaisteko denborak murriztuko dira, une honetan merkatuan dauden denborekiko % 55 inguru.



BA AL ZENEKIEN...

ULMA Taldeak, Udako Euskal Unibertsitatearekin batera, honako ikastaro hau babestu du: *Prestakuntza futboleant: ikasten irakastea*, uztailaren 19tik 21era emango dena; etorkizunean gazteenei futbola irakatsiko dieten pertsonen zuzenduta dago. ULMAk ikastaroan parte hartzeko 90 beka eman ditu, eta horren bitartez, ULMA Taldeak bere jardueraren inguru hurbilenean Korporazioaren Erantzukizun Soziala garatu nahi du.

ULMA Packaging

ULMA Packaging negozioia Bruselako Seafood 2006 azokan

ULMA Packaging negozioak Bruselan maiatzaren 9tik 11ra egin zen Seafood 2006 azokan parte hartu zuen. Arrainaren sektoreko azoka nagusietako bat da, eta 22 herrialdetik gorako 200 erakusmahai baino gehiagok euren berrikuntzak erakusten dituzte urtero. Oraingo honetan, ULMA Packaging negozioak, besteak beste, Scorpius 400 termoizilatzaila eta Supra Skin termoformatzaila aurkeztu zituen. Scorpius 400 makina ontziratze prozesua industrializatzeko lehenengo urratsa da –zigilua ezartzeko gehieneko azalera 300 x 420 da–; barketa egonkorretan ezarritako edozein motako produktuak ontziratze aukera ematen du, gero, beharrezkoa izanez gero, atmosfera egokituan zigilatze. Supra skin makinak skin teknologia aplikatzen du (hutsean ontziratzean produktua film zurrun baten gainean ezartzen da, taparen filmak produktuaren forma hartzen du, eta produkturik ez dagoen oinarriaren azalera osoan itsatsita gelditzen da); orain arte, teknologia hori makina handietan baino ez zen erabiltzen, eta inbertsio handiak eskatzen zituen. ULMAK teknologia hori merkatu zabalago batera hurbildu nahi izan du, askoz ere inbertsio txikiagoa eskatzen duten ereduetan aplikatuz.



ULMA Agrícola



ULMA AGRÍCOLA; BEZEROENTZAKO SOLUZIOAK. Viveros Bermejo Totanan dago, Murtziako probintzian, eta sasoiko landareak eta loreak ekoizten eta merkaturatzen ditu. Horníco inguruetan honek duen lursailean ULMA Agrícola etxeak instalazio berriak egin ditu: 1,5 Ha-ko berotegia, G9 ereduakoa (22G9x77.5 m) eta teilatupean 4,5 m dituen eta superzentrik erako leihoak dituen eraikin guztietan. Berotegiaren perimetro osoan 2 m-ko luzera duten gillotina leihoak ditu, 2,5 m-ko zati bakoitzeko zurkaizatuta dago, berotegi osoan kondentsazio kanal bat du, eta polikarbonatu gardena erabili da ixteko. Aldi berean, barrualdean hainbat sektore bereizten dira, lantzen den landare motaren argi eta tenperatura beharren arabera; horretarako, sabaian eta alboetan pantaila bikoitz bat erabili da, termikoa eta itzalak egitekoa, eta guztia automatismoen bidez automatizatu eta kontrolatu da. Bestalde, egituraren bidez berotegiari lotuta, biltegiarako eta salgaien prestaketarako egitura dago, 3.000 metrokoa; 5M9 x 70 m-ko multikaperez eginda dago, teilatupean 6 m-ko altuera librea du, eta oinak ditu 10 metroko zati bakoitzeko, barrualdean ibilgailuei nahiko erraz mugitzeko aukera emanez.



“Espainiako pentsio sistemak arazoak izango ditu neurri zuzentzaileak hartzen ez badira”

Duela urte eta erdi baino gehiago, 2005eko urtarrilaren 1ean, Lagun-Aroko medikuntza orokorreko eta botiken arloko estaldurak osasun sistema publikoan integratu ziren. Nolakoa izan da, oro har, prozesua? Prozesua ondo joan da, aurreikusitakoaren arabera. Halako onuradun talde handia integratzean espero zitezkeen hasierako arazoek (atzerapenak eta akatsak osasun txarteletan...) behar bezalako konponbidea izan zuten. Medikuntza orokorreko estaldurari dagokionez, aldaketa positiboa izan da sistema publikoko medikuntza orokorreko sarea aurrez ere erabiltzen zuten mutualistentzat eta onuradunentzat, besteak beste, zerbitzu horiek erabiltzeagatik ez dutelako gehiago ordaindu behar. Aldaketa handixeagoa izan

da Iguala ordaintzen zuten onuradunentzat, orain Osakidetzak zehaztutako familia sendagilearengana joan behar baitute. Hala ere, Igualetako sendagileak Osakidetzan sartu direnez, kasu askotan onuradunek familia sendagile berbera izaten jarraitu dute.

Hurrengo urtean arreta espezializatu eta ospitaleko arretako estalduren kudeaketa autonomoa ere desagertuko da; jakin al dezakegu Lagun-Arok horren aurrean irtenbideren bat planteatzeko hartutako konpromisoaren egoera zein den? Azkeneko Batzar Orokorrean esan genuena gogoratu, Lagun-Aroko Artekari-tza Kontseiluak hausnarketa prozesua hasi du etorkizunean lankidetzarik gabeko testuinguru

honek (2008ko urtarriletik aurrera) izan ditzakeen irtenbideen inguruan; prozesu hori nahiko aurreratuta dago une honetan, eta laster Ordezkaritza Batzordeekin eta Kooperatibekin irtenbideak eztabaidatzen hasiko gara. Dena dela, Artekari-tza Kontseiluak adierazi zuen Lagun-Arok Onuradun Berezien irudia bere horretan utziko duela; irudi horrek, hileroko kuota bat ordainduz, osasun arloan sistema publikoaz gain beste estaldura osagarri bat izateko eskubidea ematen du.

2005. urtean laneko huts egiteen tasak azken urteetan izandako dinamika gorakorra haustea lortu zen. Zein izan da, zure ustez, lorpen horren arrazoia? Zein funtzio betetzen dute prebentzio kanpainak? 2003. eta 2004. urteetan

Piramide demografikoan gertatutako aldaketek, etorkizun hurbilean, desoreka handiak eragingo dituzte pentsio sistema publikoan. José Antonio Ajuriak gertatu daitekeenarengako etako batzuk azaltzen dizkigu, eta Lagun-Aroren gizarte aurreikuspen sistemako ezaugarri bereziak adierazten dizkigu.

laneko huts egiteen tasa % 5,5 ingurukoa izan zen, eta 2005. urtean % 5,28ra jaitsi zen. Honelako gaitan gertatu ohi denez, bilakaera hori ez da faktore bakar baten ondorio izan, laneko huts egiteen arrazoiak ugariak baitira. Baina badirudi aldagai horren bilakaera negatiboaren inguruko kontzientziazioak funtzio garrantzitsua bete duela joera aldaketa honetan, eta Lagun-Aroko 2005-2008. urteetako Plan Estrategikoan gai horri garrantzi berezia eman zaio. Plan Estrategiko horretan onartutakoarekin bat etorriz, Lagun-Arok laguntza eskaini die kooperatibei laneko huts egiteak kudeatzeko eta horien jarraipena egiteko prozedurak eta tresnak abiarazteko prozesuan, eta ikuskaritzako osasun zerbitzuak ere sendotu egin ditu. Baina joera aldaketa hori finkatu dadin, kooperatiba guztien parte-hartze aktiboa beharrezkoa da, ez soilik laneko arriskuak aurreikusteko neurrien ikuspuntutik, baita laneko huts egiteen barneko kudeaketaren ikuspuntutik ere; alderdi horretan hainbat kooperatibek urtez urte laneko huts egiteen tasa batez bestekoaren azpitik egotea lortu dute, eta urtero batez besteko hori gainditzen duten kooperatibentzat eredu izan behar dute.

Etorkizunean pentsioen erreforma egingo dela ere esaten da. Zein balioespen egiten du Lagun-Arok erreforma horri buruz, eta gure mutualistek zein irtenbide aurreratu beharko dituzte? Jende guztiak hitz egiten du pentsioen sistema publikoaren erreformaz, are gehiago esparru honetan Europar Batasuneko herrialde guztietan gertatu diren mugimenduak kontuan

hartzen baditugu. Espainiak nahiko egoera ona du epe laburrean, azken urteetan enpleguan gertatutako igoeraren eta kurba demografikoaren ondorioz, baina analistek etorkizunean gehien sufrituko duen herrialdeetako bat izango dela aurreikusten dute, neurri zuzentzaile egokiak hartzen ez badira behintzat. Gehien aztertzen ari den neurrietako bat, lan-bizitza luzatzeaz gain, erretiroko oinarri arautzailea kalkulatzeko kotizazio-karrera osoa kontuan hartzea da, gaur egun kontuan hartzen diren azken 15 urteen orde. Hala ere, Gobernuak eta gizarteko bitartekariak hitzarmen bat adostu berri dute Gizarte Segurantzaren erreforma egiteko, eta hitzarmen horretan gai hau ez da kontuan hartu, pentsioa kalkulatzeko formula bere horretan gelditu baita. Lagun-Aron bere garaian pentsioaren kalkulua kotizatutako 360 hilabete (30 urte) onenen batez bestekoaren indizera egokitu genuen.

2020. urterako, Espainiako biztanleriaren % 35 inguruk 60 urte baino gehiago izango dituela esaten da. Nola ikusten dira datu horiek Lagun-Aron? Estaldura pribatua planteatzen al da irtenbide osagarritzat? Lehenago

esan dugunez, sistema publikoak tentsio handiak jasango ditu urte horretatik aurrera, pentsiodun bakoitzaren kotizazioen ratioa asko murriztuko baita, eta horrek orekatzen du banaketan oinarritutako pentsio sistema publikoa, pentsioak langile aktiboen kotizazioei esker ordaintzen baitira. Lagun-Arok mutualistaren bizitza aktiboan metatutako funtsen bidez finantzatzen ditu pentsioak (kapitalizazio sistema), eta beraz, sistemaren oreka ez

dago mutualista aktibo bakoitzeko dagoen pentsiodun kopuruaren menpe. Hala ere, beste aldagai demografiko batek badu eragina, bizi itxaropenaren bilakaerak hain zuzen, izan ere, zenbat eta gehiago bizi, orduan eta handiagoa izango da pentsio berbera finantzatzeko eratu behar den kapitala. Sistemak aldagai horren bilakaerari aurre egiteko gai dela erakutsi du, PER-2000 hilkortasun taula berrietara ondo egokitu baita. Norbanakoaren estaldura osagarriari dagokionez, baliozko aukera malgua da, eta pertsona bakoitzari bere beharretara eta lehentasunetara (erretiro aurreratua, pentsio maila hobetzea...) hobeto egokitzeko aukera ematen dio. Gure sistemari badugu tresna bat, Arogestión, aurrezki osagarri hori bideratzeko aukera ematen duena.



“Lagun Aroko estaldurak osasun sistema publikoan integratzeko prozesua oso egokia izan da”

Kooperatibaren balioak eztabaidagai

Kooperatibaren balioak eta printzipioak eztabaidatzen ari diren une honetan, mahai baten inguruan ULMA Taldeko negoziotako lehendakariak bildu ditugu, gaur-gaurko eztabaidagai honetaz galdetzeko eta guk ULMA dugun jokabideaz zer uste duten jakiteko.



José Luis Madinagoitia
(J.L.M.)
ULMA Construcción
negozioko eta
ULMA Taldeko Lehendakaria



Martín Etxaniz
(M.E.)
ULMA Handling Systems
negozioko Lehendakaria

Gure bazkideei gure misioa zein den eta gure balioak zein diren galdetuko bagenie... jakingo ote lukete zer erantzun? Ildo horretatik, gure misioa eta balioak ezagunak direla eta gure kolektiboan barneratuta daudela uste al duzue?

>> **M.E.:** Modu egituratu batean, modu esplizituan, ez dira ezagutzen. Baina, bestetik, bazkide askok badute espiritu hori, kulturaz, izan duten historiagatik etab. Baina "ULMAren misioa hauxe da, eta balioak, berriz, hauek" esaten, ez, ez lukete jakingo. Eta uste dut gu guztion erantzukizuna dela hori.

>> **J.L.M.:** Bat nator ni ere horretan: bazkide guztiei paper zuri batean galdera ireki hori egingo bagenie, nekez jakingo lukete erantzun bat ematen... Uste dut ez dakigula buruz zer den gure misioa,

zer, gure balioak. Dena den, oro har, bakoitzak kooperatiban bizi izan duenaren arabera, horren inguruan ideia batzuk izan ditzakeela uste dut. Barneratuta, ez gehiegi, seguruenik. Guztion dema da arlo hori gehiago lantzea.

>> **K.A.:** Balio horiek zein diren azterketa batean bezala galdetuz gero, uste dut inork ez lukeela jakingo balio horiek definitzen. Dena den, zein diren jakin ez arren, uste dut egunerokoan hor daudela. Agian eguneroko aplikazio horrek berak sortzen ditu balioak.

>> **JULU:** Bat nator. Ez dira ezagutzen. Adibidez, guk, ULMA Hormigón Polímero negozioan, garrantzi pixka bat zuen bilera bakoitzean, azken minutuak balioen alde edo kontra ezer egin den aztertzerazuzendu ditugu aurten. Orain, jendeak hobeto daki zein diren balio horiek, eta

barneratzen ari gara, nahiko ezezagunak baitziren.

>> **N.V.:** Uste dut jendeak ez dakiela balio horiek zer diren, baina agian badakite horrelako gaiekin zein pertsona dauden gehixeago identifikatuta; horregatik, uste dut jendeak gehiago identifikatzen dituela pertsonekin. Hala ere, uste dut badagoela interpretazio arazo bat ere: balioen inguruan eztabaidan hasten zarenean, barreiatu egiten da kontua... Normalean jendeak ez ditu ezagutzen, eta ez dakit ezagutu nahi dituen ere.

>> **A.G.:** Uste dut ez daudela barneratuta, baina komunikatuta bai. Jendeak barneratzea nahi badugu, lan handiagoa egin beharko da, sakonkiago eta koherentzia handiagoaz. Zenbat eta koherenteago izan, are sakonkiago barneratu ahal izango dira, eta horrela,

errazagoa izango da gure balioak zein diren jakitea.

Balio horiek zabaltzeko egiten diren ekin-tzak nahikoa direla uste al duzue? Hauen hedapena eta sustapena azpimarratzea organoen zeregina da, zure iritziz?

>> A.G.: Zalantza izpirik gabe, organoek sustatu behar dituzte lehenbizi, eta



“ Teoriek aspertuta daukate jendea, koherentziaz hitz egiteko unea da ”

ahaztu behar gizartean balioak aldatu egin direla. Kooperatiban sartzen den jende gaztea beste balio batzuekin dator, bilakaera bat gertatu da, kooperatibaren balioetan gertatu den bezalaxe; aldatu baino areago, hobeto definitu dira. Uste dut jende askok kooperatiba lana egiteko eta diru bat irabazteko toki bat baino ez dela pentsatzen duela, ez balio batzuk praktikatzan diren leku bat.



Alazne Guridi
(A.G.)
ULMA Orga Jasotzaileak
negozioko Lehendakaria



Nerea Villar
(N.V.)
ULMA Forja negozioko
Lehendakari ohia



Juan Luis Murguzur
(JULU)
ULMA Hormigón Polímero
negozioko Lehendakaria



Karmelo Arregi
(K.A.)
ULMA Packaging
negozioko Lehendakaria

enpresaren gainerako osagaiak gero. Baina, lehenengo, organoek gai hori barneratuta izan behar dute, eta koherentziaz jokatu. Uste dut ez dugula nahikoa egiten, nik, behintzat, ez dut nahikoa egiten denik sumatu. Esate baterako, balioek zer esan nahi duten jakiteko komunikazio prozesuak hobetu ditzakegu.

>> N.V.: Uste dut organoak kooperatibaren ildoekin bat datozen pertsonak izan beharko lirakeela. Une honetan, Kontseilu Errektoreetan funtzio horiek bereganatuta ez dituzten pertsonak ditugu; hortaz, organoak prestatzea garrantzi handikoa da. Uste dut ez dugula ezer askorik egiten jendea balio horiez jabetu dadin. Uste dut ilusioa helarazi behar diogula jendeari, teoriak aspertuta baitaude, eta koherentziaz hitz egiteko unea da. Horrelako gauzak adierazteko

modua aldatu beharko litzatekeela uste dut.

>> JULU: Balioak ezagutzea, bizitzea eta koherentzia aplikatzea ahalbidetu eta sustatu behar dute organoek. Langile zaharrenak dira, ia ezer esan beharrik gabe, balioak gehien zabaltzen dituztenak; agian horren beharra izan dutelako, barneratuago dituzte. Garai latzagoetan, balio horiek aplikatu egin dira, inolako teoriarik gabe.

>> N.V.: Jende askok uste du gaur egun bizi ditugun gauza asko horrela direla, horrela direlako, besterik gabe; eta egia esateko, gauzak orain bezala ez doazenean, zenbait jarduera ikusi nahi nituzke...

>> K.A.: Balio horiek hedatzeaz organoek arduratu behar dutela planteatzea... Nik uste dut egiten dutela hori. Ez dugu

ULMA Taldean, balioen esparruan egin den okerrik handiena horixe izan da: beti hitz egin izan da garapen iraunkorraz, baina enpresa munduan soilik, eta ez dugu horrelakorik egin enpleguaren ikuspegitik. Enpleguaren goren muturra pasatu ondoren jabetu gara oker horretaz, eta orain atzera egiteko ahaleginean ari gara, jendeari balioak helarazteko saioetan gabilta; ez gara horrelako ezer egiteko gai izan, enpleguak izan duen bilakaera izan duenean.



“ Langile zaharrenak dira, ia ezer esan beharrik gabe, balioak gehien zabaltzen dituztenak ”



>> **J.L.M.:** Ez dugu nahikoa egiten, argi eta garbi. Doktrina asko egin dugu, baina eztabaidatu gabe. Beroriekin lan egin behar dugu. Garrantzi handia duen erabaki bakoitza hartu aurretik, erabaki horrek gure balioetan eraginik baduen eta nola eragiten duen aztertu beharko genuke. Balioak jendeari nola helarazi aztertu beharko genuke. Organook horrelako gaiak lantzeko eta jendearengan interesa pizteko ahal duguna egiteko betebeharra daukagu, nahiz eta pixka bat balio horiek hartzeko prest egotea ere eska dakiekeen guztiei. Azken finean, uste dut oraindik kooperatiban jende asko ari dela guztion onerako, eta ez norberaren onerako.

>> **M.E.:** Bai, organoen ardura da balioak helaraztea, nola egin da kontua. Gaur egun, kooperatibaren balioen aldeko giro bat sortzea nahiko zaila da. Mahai inguruetan kritika sustatu behar litzateke, eta abar.

>> **A.G.:** Arrisku pixka bat ikusten dut gauza batean: balioen kontu horretaz behin eta berriro jardutea nekagarri gerta daiteke, gero benetan betetzen ez badira; garrantzi handia du balio horiek ondo ezagutzeak, baino askoz handiagoa beroriek betetzeak. Beharrezkoa litzateke organoetan norbait izatea, horrelako gaiak hedarazteko ardura duten organoak akuilatzeke.

>> **J.L.M.:** Ez legoke gaizki mahai inguru bat egitea, eta horrelako gaietan zer

ari garen ondo egiten eta zer gaizki azterzea bertan.

ULMA Taldean gure misioan eta balioetan oinarrituta jokatzeko dugula uste al duzue? Misioa eta balioak betetzeko modua zuzena eta egokia izan dadin beharrezko baliabide guztiak ditugula pentsatzen al duzue? Zer hobetu daiteke arlo horretan?

>> **M.E.:** Organoetatik berorietan oinarrituta jokatzeko ahalegina egiten da, baina agian ez gara ezer handirik egiten ari jendeak balioak onar eta barnera ditzan. ULMA Taldean erabili nahi ditugun baliabide guztiak ditugu, baina zer egin nahi dugun argi jakin behar dugu...

>> **J.L.M.:** Nik uste dut oro har hala egiten dugula, % 100ean ez bada ere. Uste dut asmoa zuzena dela, baina ohiturak, etab. Kooperatibetan daukagun baliabide egoki bat kontrol soziala da. Hobeto egin dezakegu, buruan dauden organoetatik hasita.

>> **K.A.:** Kontseilu Soziala, adibidez, kooperatiba-enpleguaren isla da. Ez da batere ezaguna. Ondasun komunarekin lotuta duela zenbait urte zegoen filosofiara itzultzea kostatu egingo zaigu,

gaur egun bazkide batzuk gehiago ari dira bere buruari begira.

>> **JULU:** Orain dela 20 urteko garaietara begiratuz gero, ULMA Taldea 3.000 milioi fakturatzetik 90.000 milioi fakturazteara pasatu da. 3.000 lanpostutik gora sortu ditu. Beronen inguruan aberastasuna sortu du, ia ez dago langabeziarik. Gure balioei bizkarra eman izan bagenie, ez zen horrelakorik gertatuko... Balioak bete egiten dira. Eta gauzak irizpideetan oinarrituta egiten dira. Zer gertatuko den aurrerantzean... hori ezin dezaket jakin.

>> **J.L.M.:** Gauzak lortzen ari gara, noski. Aberastasunen banaketan, Europaren barnean aberastasun hori hobekien banatzen duten elkarteetako bat gara. Pertsona asko dauzkagu, beren arloetan konpromiso sendoa hartuta ari direnak.

>> **N.V.:** Geure burua dezente zigorkatzen dugu. Kontsekuenteak gara, normalean. Ez dut uste balioen aurka ezer egin dugunik. Lanabesik onena praktika da. Egia da, hala ere, erakundeak ez dituztela aurrera eramaten kolektibo osoek, batzuetan oso lagun gutxiren eskuetan daude. Uste dut, pertsona gutxi batzuk konpromiso handia hartu dutelako, hau guztia aurrera egiten ari dela, nahiz eta egia den jende askok ez duela eragozpenik jartzeko, esaten zaion bidetik doala.

>> **M.E.:** Jende askok kooperatiba batean guztia batzarren bidez egiten dela pentsa



“Doktrina asko egiten dugu, baina eztabaidatu gabe”



**“ Geure burua dezente
zigorkatzen dugu;
balioei dagokienez,
kontsekuenteak gara
normalean ”**

dezake, eta ez da horrela. Batzarra guztien eskubidea da, baina batzar horrek organo batzuen gainean uzten du bere ordezkartza, eta horiek dira bultzaka ari direnak.

>> **A.G.:** Gauza dezente egiten da ondo, gaizki baino gehiago. Baina hobetzeko kritikoak izan beharko genukeela ere uste dut. Tresnei dagokienez, uste dut kooperatibaren beraren araudia dela tresnarik onena, eta berau zuzen aplikatzea.

Enpresa kudeaketako beste gai batzuetan gertatzen den bezala, beharrezkoa iruditzen al zaizue gure balioak zenbateraino betetzen diren neurtzeko adierazleak erabiltzea?

>> **A.G.:** Bai, helburu guztiak behar dituzte adierazleak. Prozesu guztietan hala egiten da, eta zergatik ez hemen? Zailena nola egin jakitea da.

>> **N.V.:** Ez dakit helburura iristeak aurrera egitea adierazten duen, ez bada helburu horretan sinesten.

>> **JULU:** Adierazleak edukitzeak beti lagunduko du, baina nik uste dut balioak pertsona bakoitzak barneratu behar dituen zerbait direla.

>> **K.A.:** Gogobetetasun inkesta adierazle bat da. Gure inguruan zergatik funtzionatzen dute gehiago balioek? Bada, noranzko berean joateko bat egiten dugulako.

Baina bada kooperatiba batean lanean ari den jendea, lana berdin-berdin zaiola islatzen duena. Entzuten diren planteamendu batzuek zer pentsatua ematen dute, badirudi beste eredu batzuen bila ari direla.

>> **J.L.M.:** Baditugu adierazle batzuk, bai; langileen gogobetetasun-maila neurtzeko aldizka egiten den inkesta bat daukagu, gizartearen gogobetetasun maila neurtzen duen beste bat, etab. Kooperatibako enpleguaren arloan, % 80ko adierazlea % 85era eraman nahi genuke. Beste alderdi batzuetan zailagoa da, antolamendu demokratikoaren arloan, adibidez, legez ezarrita baitator. Gero estiloak, harreman moduak etab. daude, eta zaila da horiek neurtzea.

>> **M.E.:** Balioak eta misioa sustatu behar direla uste badugu, neurtu beharra daukagu. Nola... horixe da gure dema. Adierazleak beharrezkoak al diren..., nik baietz esango nuke. Gizarteak enprez duen iritzia inkestek zehazten dute. Pertsonak harrera planekin bonbardatzen ditugu, eta ordu erdian izugarriko informazio mordoak ematen zaie, eta ezin dute barneratu.

>> **K.A.:** ULMA Taldean, zerbait egin behar genuke; negozioen inguruko ezjakintasuna handia da, baita negozioen beroien artean ere, eta kontuan hartu guztiok 500 metroren barnean gaudela.

>> **N.V.:** Bizitza honetan, bizitzeko lan egin beharra dago. Argi dago orain arte ezin izan duzula erabaki non lan egin, irteten zaizun tokian lan egiten duzu. Jendeak lan egin nahi du, eta kito, askorentzat kooperatibismoaren kontua bigarren mailako kontua da.

Amaitzeko, kooperatibaren balioen eta printzipioen arloan, zein da zuen iritziz aurrean dugun dema nagusia, guztiok elkarrekin kooperatiba proiektu hau garatzen jarraitzeko?

>> **M.E.:** Uste dut dema nagusia guztiona izatea dela. Jendeari balio horiek helarazi behar dizkiogu. Gizartea bilakatu egin da, eta jada balioak ez dira lehengo berak; beraz, lan merkatura doan jendeak beste balio batzuk dakartza. Jada 14 urte pasatu dira azken krisi handitik, eta horrek esan nahi du “memento onak” baino bizi izan ez dituen jende asko daukagula. Zer balio ezagutzen ditu jende horrek? Taldean gero eta gehiago gara, eta bitxia bada ere, gehiago dira gurekin lanean duela hamar urte baino gutxiagotik ari direnak, eta horrek balio berrien sarrerarekin zerikusi zuzena du.

>> **J.L.M.:** Gizartearen balioak bilakatu egiten dira, baina, aldiz, kooperatibaren printzipioen ikuspegitik, baliagarri izaten jarraitzen dute; beste kontu bat da aplikazio-eremua aldatzea. Duela 15 urte, gure eremua Oñati eta Debagoiena ziren, eta gaur egun mundua da. Beraz, jende horrekin guztiarekin kooperazioa nolakoa den aztertu beharra dago, bestela, kooperatiba multinazional bihurtzeko arriskua izango dugu. Filialetan, kooperatibaren balioetan uste sendoa duen jendea dago.

>> **JULU:** Niretzat, balioak baliagarriak dira, uste osoa daukat berrietan, baina benetako dema pertsonengan dago.

>> **K.A.:** Gure balioak oinarrizko balioak dira, ez dut uste ezer utopikorik dagoenik. Baina filialen eta gure artean, printzipioetan halako talka bat dago. Beraiek ere konturatzen dira beste erlazio batzuk sustatzen ditugula. ULMA Taldeaz ari garenean, ni negozio batean ari banaiz ere, guztiok itsasontzi berean gaudela esaten ari gara. Hau da, nik ahal dudana guztia egin behar dut Talde honetako beste negozio batean ari den pertsona ni bezain ongi edo hobeto bizi dadin, negozio ingurune orekatu batean bizitzeaz ari baikara. Horixe da Taldea niretzat, elkartasuna.


ULMA Taldeak 229 lanpostu

Urteroko konpromisoari leialki eutsiz, 2005. urtean berriro ere lanpostu berriak sortu dira, eta 3.094 enplegutar iritsi dira batez beste; urte arteko lanpostuen hazkundera 229koa izan da, eta jatorrizko enpresetan bazkideen enplegua indartu da, bazkide kopurua hazi egin baita, 106 lagun gehiagorekin

ULMA TALDEAREN MISIOA

“Taldekako enpresen proiektu soziala garatzen dugu, pertsonengan eta beren garapen integralean oinarrituta; etengabe gure bezeroen, taldeko langileen, kanpoko laguntzaileen eta gure gizarte ingurunearen gogobetetasuna bilatuz, hazkunde errentagarria eta iraunkorra ahalbidetuko duena; kooperatibaren esparruan aberastasuna eta enplegua sortuko dituen, komunikazioan eta parte hartze aktiboan ardaztuta”.

Bataz besteko enpleguaren bilakaera



ULMA FUNDAZIOA; ELKARTASUNEAN INBERTITUZ

Aipatu beharreko berrikuntza nagusia ULMA Fundazioa eratzea eta abiaraztea izan da. Hauek dira Fundazioaren xede nagusiak:

1. Dagokion jarduera eremuan, ekonomia soziala sustatzea eta babestea.
2. Sozietate eta kooperatiben arloan nahiz lanbide arloan, heziketa eta prestakuntza babestea, eta baita kooperatibetako langileei eta bestelako onuradunei kooperatiben printzipioei eta balioei buruzko prestakuntza eta heziketa eskaintzea ere, kooperatibetako lanekin eta jarduerekin lotutako gaiak ere landuz; eta dagokion eremu geografikoan kooperatibismoaren ezaugarriak zabaltzea.
3. Hezkuntza eta prestakuntza (arautua eta arautu gabea) sustatzea bere jarduera eremu geografikoan, edozein mailatan.
4. Elkarteei, taldeei eta erakundeei kultur izaerako jarduerak, gizarte jarduerak, ongintzakoak edo laguntza jarduerak egiteko laguntza ematea eta jarduera horiek sustatzea.

5. Harremanak, elkartasuna eta lankidetzaren sustatzea gizarte ekonomiko erakundearen artean, eta baita berorien eta Fundazioaren onuradun izan daitezkeen eta Fundazioaren helburuak betetzen lagundu dezaketen pertsona fisiko eta juridikoen artean ere.
 6. Ikerketa eta garapena bultzatzea, bere jarduera eremuan jarduera berriak sustatzeko eta enpresaren ikuspegitik edo estrategikoki interes berezia duten proiektuetan laguntzeko ekimenak indartuz.
 7. Lanpostuen sorrera sustatzea eta lanpostu horiei eusten laguntzea, enpleguaren egonkortasuna sustatzera edo bermatzera zuzentzen diren jarduerak babestuz, batez ere Fundazioa kokatuta dagoen eskualdean.
- Heziketako eta Kooperatiba Sustapeneko Fondoen urteko ekarpenei dagozkien baliabide ekonomikoak, taldeko kooperatibetatik datozenak, kudeatuko ditu ULMA Fundazioak.

berri sortu zituen 2005ean

ERAKUNDE ELKARTASUNA

2005etik, ULMA Taldeak MCC korporazioan parte hartzen du, bere dibisioa osatuz; proiektu horren barnean, elkartasunaren esparruan onartu ditugun konpromisoerantzuten ari gara. Hori dela eta, azken ekitaldi honetan emaitzen banaketan ondoren adierazten diren zenbatekoak jardura hauetara zuzendu ditugu, korporazioaren kudeaketaren bidez:

- Kooperatiben arteko Fondo Nagusira 2.692.662 euroko zenbatekoa zuzendu da, kapital-ekarpen modura, eta lortutako emaitzen % 10 adierazten du horrek. Fondo horrek ematen dituen laguntzak proiektu estrategikoetan parte hartzera, jardura berriak sustatzera, zorpetzeko gaitasuna agortua duten kooperatibak finantzatzera, galeren konpentsaziora eta berregituratze proiektuak babestera zuzendu dira.
- Heziketako eta Kooperatiben arteko Sustapeneko Fondora 308.290 euroko zenbatekoa zuzendu, ez itzultzekotan; Heziketako eta Kooperatiba Sustapeneko Fondoko zenbatekoaren % 20 adierazten du horrek; eta kooperatiba taldearen barneko sozietate eta kooperatibetarako eta lanbideetarako prestakuntza proiektuak eta ikerketa eta garapen proiektuak babesten ditu.
- Mondragon Unibertsitatea Proiektura 154.145 euro zuzendu dira, ez itzultzekotan; Heziketako eta Kooperatiba Sustapeneko Fondoen % 10 adierazten du kopuru horrek.
- Eta Kooperatibako Elkartasun Fondora 538.532 euro zuzendu dira, ez itzultzekotan; lortutako emaitzen % 2 adierazten du, hain zuzen. MCCren Industria Taldeko kooperatiben galeretako % 50 konpentsatzeko baliabideak ematen zaizkio horrela MCC Fundazioari.


SEGURTASUNA ETA LANeko OSASUNA

2005. urtean, batez ere ULMA Taldeko Negozioetako Laneko Arriskuen

Prebentziorako Kudeaketa Sistema ezartzeari dagokionez aurreko urteetan egingadako ahaleginaren emaitzak argi ikusten hasi dira.

2003an, taldean Intzidentzia Tasaren adierazleak zifra kezagarria adierazten zuen, 149,03; 2004an 103,21era murriztu zen, eta 2005ean 100dik behera egitea lortu dugu, argi eta garbi, 86,05ekoa izan baita. 2006. urterako helburua adierazle hori 85tik behera jaiste izango da.

Intzidentzia tasa



GIZARTEAREKIN HARTUTAKO KONPROMISOA

Kooperatiba proiektu garenez, gizarte aldaketekin hartutako konpromisoak indarrean jarraitzen du, eta Heziketako eta Kooperatiba Sustapeneko Fondoak, modu orekatuan, dauden beharretara zuzentzeko taldean hartu zen politikarekin jarraitzen dugu. Heziketako eta Kooperatiben arteko Sustapeneko Fondora zuzendutako zenbatekoak eta Mondragon Unibertsitateari emandako ohizkanpoko laguntzak kendu ondoren (Erakunde Elkartasuna atalean azaldu dira), 1.337.964 euro hainbat ataletara zuzendu dira:

- Kooperatiben Sustapenera (proiektu berriak): 361.250 €.
- Prestakuntza Proiektuetara: 214.074 €.
- Kooperatiben arteko proiektuetara: 173.935 €.
- Hezkuntza, Ikerketa eta Garapen erakundeak babestera: 267.593 €.
- Gizarte eta kultur sustapeneko proiektuetara: 321.111 €.

2005EAN EMANDAKO LAGUNTZAK

- Mondragon Unibertsitatea Proiektua.
- Kirola sustatzeko KIROLOGI Fundazioari emandako babesa.
- GKE motako hainbat erakunde-ri laguntzea, bereziki MUNDUKIDE Proiektuari; elkartasun eta lankidetzara proiektu honen bidez, Euskal Herriko Lankidetzara Mugimenduak garapen bidean dauden herrialdeekin lan egingen du.
- Oñatiko Aloña-Mendi Kirol Elkarteari emandako laguntza.
- Gaztela eta Leongo Txirrindulari Bira eta Sari Nagusia babestea.
- Euskal Herriko Itzulia babestea.
- Kulturaren eta euskararen normalizazioarekin lotutako proiektuak (musika eskolak, Donostiako Orfeoia, KONTSEILUA, ELHUYAR Fundazioa, GOIENA, DIVERGENTES proiektua (artetik berrikuntzara), Artzainen mundu biltzarra, dantza taldeak, antzerkia...).
- Laguntza zerbitzuak ematen dituzten erakundeei emandako laguntza (MATIA Fundazioa, SAN MARTIN egoitza, zailtasunak dituzten pertsonentzako BIDEBARRI enplegu zentroa, etab.).
- Tokiko hezkuntza proiektuak eta udako ikastaroak.
- Gure ordezkarietatik gertuko erakundeetako GKEen gizarte eta kultur proiektuak babestea.




Osasun programa – Ergonomia eskola

Norbanakoari ongizate handiagoa eskuratzen laguntzeko bizi ohitura osasungarriak sustatzea da gure garai honetan osasunarekin eta laneko jarduerarekin lotutako oinarrizko gai garrantzitsuenetako bat. Ergonomia eskolek goian zehaztutako premisei erantzuten diete. Funtsean, laneko osasun departamentuaren barneko beste tresna bat baino ez da, eta langileen osasun indibiduala nahiz kolektiboa zaintzea eta hobetzea ditu helburu. Ikuspegi proaktiboa erabiltzen du, eta informazioa, prestakuntza, kontzientziazioa eta integrazioa dira funtsezko euskarri metodologikoak. Aipatutako helburuen artean, lesioak eta eskeleto-muskuluetako nahasteak aurreikustea da nagusia. Gainera, ergonomia eskolak osasunaren sustapena egiten du, langileen beren parte hartze aktiboa bultzatuz, beren osasunaren protagonista nagusi baitira; bestalde, bizi estilo osasungarriak sustatzen ditu eta enpresan osasun inguruak sortzea bultzatzen du.

ERGONOMIA AKTIBOKO OSASUN PROGRAMAREN HELBURUAK

- > Lanaldian prebentzioko ariketak egiteko ohitura sortzea.
- > Parte hartzaileari bere bizkar hezurra zaintzeko kontzientzia hartzen laguntzea.
- > Eguneroko bizi ohiturak aztertzea eta hobetzea, baita lanaldiaren barnekoak ere.
- > Programako parte hartzaileen artean giro positiboa sortzea, harreman pertsonalak hobetzeko.
- > Pertsonaren oinarrizko egoera fisikoa hobetzea.



ULMA TALDEAN PROPOSATUTAKO LAN ESKEMA



a) PERTSONEN AUKERAKETA

b) ELKARRIZKETA PERTSONALAK

Behin parte hartzaileak aukeratu ondoren, elkarrizketa pertsonala egingo da eta ondoko alderdiak ezagutaraziko dira:

- > Osasun programako taldearen aurkezpena: sendagilea eta teknikaria.
- > Programaren helburuak.
- > Parte hartzaileen inplikazioa eta motibazioa sustatzea.
- > Osasun azterketa egiteko ordua ematea.
- > Feedback-a proposatzea eta bultzatzea.

c) LANPOSTUAREN AZTERKETA

Osasun programaren barnean eta jarrera higieinarekin lotuta, lanpostuen azterketa egitea funtsezkoa da. Ondoko helburuak izango ditu:

- A. Hartu ohi diren eta epe laburrean, ertainean nahiz luzean lesioa eragiten duten edo lesioari kalte egin diezaioketen jarrera desegokiak ikusten eta jarrera horiez kontziente izaten laguntzea.
 - B. Langileei lesioak gutxitzen eta aurreikusten lagunduko dieten teknikak eta metodologiak irakastea. (Nork bere burua babestea)
- Programan parte hartuko dutenengan erantzun hobea lortzeko honako metodologia erabiliko da:
1. Lanpostua bertatik bertara ikustea.
 2. Lanpostuaren estadioak bidez grabatzea.
 3. Mina saihesteko eta minari aurrea hartzeko jarduerak eta ariketak proposatzea.

d) OSASUN AZTERKETA

e) PRESTAKUNTZA (20 ORDU)

- a. TALDE JARDUERA
- b. BANAKAKO JARDUERA
- c. JARDUERA OSAGARRIAK

f) AZKEN EBALUAZIOA / EMAITZEN AURKEZPENA

gutarren argazkiak eta historiak

Xabier Rezabalek, ULMA Hormigón Polímero negozioko bazkideak, Madrilgo Ijitoen Komunitatean bizi izandako bi hilabete baino gehiagoko esperientzia kontatu digu. Xabierrek Madrilen argazkigintzako eta kazetaritzako ikasketak egiten zituen bitartean argazkilari eta erreportari lanak egin zituen. Besteak beste, Madrilgo Ijitoen Komunitateari buruzko argazki erreportajea egin zuen.

"Hilabete gogorak izan ziren Madrilgo ijitoen komunitateari argazki erreportajea egiten igarotakoak. Hasieran, aurkezpen modura haiengana jo nuenean, ez nuen kamerarik eraman. Haiek gutxika ni ezagutzea nahi nuen, haien konfiantza neureganatzeko, beren intimitateari eraso egin gabe. Kontuan izan behar dugu ez dela erraza ijitoen komunitate batean sartzea aurrez harremanik izan gabe (inork ez du atsegin baimenik eman gabe bere etxean sartzea eta argazkiak egitea). Handik hamabost egunera argazki kamera hartuta agertu nintzen, eta emakume eta haurrei egin nizkien lehenengo argazkiak, izan ere, gizonezko gehienak ez ziren arratsaldeko azken ordura arte itzultzen beren eguneroko zereginetatik (kalez kaleko salmenta, txatarra, trafiko xehea, etab.). Ijitoen konfiantza neureganatzeko kopia txarrak eta kalitate oneko argazkiren bat ematen nizkien. Eta horrela, haiengana hurbiltzea eta euren bizitzetan sartzea lortu nuen; hala, bada, haiekin une paregabeak bizitzeko aukera izan nuen, arratsalde-gau partean egiten zituzten suen ondoan. Ijitoak eurek eraikitako txaboletan bizi ziren, hori izan zen niretzat harrigarriena, eta Ruiz Gallardónek hauteskundeetan egindako agindua, inguru hartan ijitoentzat babes ofizialeko etxeak eraikitzeko agindua, gogoan zuten oraindik. Ideia horretan oinarritu nuen erreportaje honen helburua. Honelako argazki erreportajeetan, lanaren % 95 argazkian atera nahi dituzun pertsonekin harremanetan jartzea eta haien konfiantza eskuratzea da, eta % 5 enkoadratzea, argia neurtzea, objektiboa, filma eta iragazki egokiak aukeratzea eta argazkia egiteko uneaz gozatzea. Honelako bidaietan, baliabide nagusia argazkian irteten diren pertsonen konfiantza eta errespetua izatea da. Beren txaboletara gonbidatzea eta sukaldean, logelen eta gauza pertsonalen argazkiak egiteko aukera izateak nire argazki bidaia bide onetik zihoala esan nahi zuen".



ULMA Taldea Mundukide fu

Mundukide Fundazioa 1999. urtean sortu zen, MCCko zenbait kooperatibak bultzatuta, eta gaur egun, ULMA Taldea Fundazio horren zereginen laguntzen duten 49 enpresa eta erakundeetako bat da. Mundukide Fundazioaren premisetako bat da garapen bidean dauden herrialdeetan kooperatibak dela gizartearen konpromiso handiena eskatzen duen formula, parte hartzaileentzat motibagarriena eta eraginkorrena enpresaren ikuspegitik, herrialde pobreen aktibo bakarra beren lana baita. Filosofia horretan oinarrituta, Mundukide Fundazioak epe luzeko eta izaera produktiboko proiektuetan lan egiten du soilik, garapen iraunkorren konpromisoa hartzen dutenetan eta izaera endogenoa eta autogestioa dutenetan; hau da, ideiak eta proiektuak garatuko diren toki berean sortzea da kontua. Gainera, sortzen diren kooperatibak beste ekimen batzuk bultzatzeko ernamuin bihurtzen dira, horrela, elkarren artean babesten diren enpresa sarea osatzeko.



Mundukide Mozambiken, Marrupa proiektuaren baitan, egiten ari den lanen irudi batzuk.

“Lehenengo aldiz, Kooperatiba Taldeko enpresek 600.000 euro baino gehiago zuzendu dituzte Mundukide Fundaziorako. 2005. urtean gertatu da hori, eta Fundazioaren diru sarrera osoen % 56 da hori. Ekarpinak egin dituzten gainerakoei dagokienez, GKEak eta Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzak nabarmendu behar dira. Kooperatiben ekarpenaren hazkundea kooperatiben emaitza onen ondorio da funtsean, gizarte helburuetarako zuzendutako funtsak ere handituz. Gure kooperatibek egindako ekarpen hau bultzada handia izan da Mundukideren aurrekontu gero eta handiagoak finantzatzeko, elkar-lankidetzaren esparruak proiektu berriak eta handiagoak abiarazten baititu etengabe. Hazkundearen kurba aurrerantzean ere handitzen jarraitzea espero dugu, hala, herrialde pobreetan bertako jendeak garatutako proiektuetan parte hartzeko zeregin zirrargarrian laguntzen jarraitu ahal izateko.”



JOSE Mª SARASUA

Mundukide Fundazioa

ndazioaren babesle

Mundukidek kooperatibismoa sustatzen du garapen bide gisa



Eskualdeko Garapen Integralaren kapituluan, Mundukidek munduko zenbait toki pobreetara hedatu du bere jarduera, hainbat jarduketa ildotan zatitutakoa. Proiektu garrantzitsuenen artean, Marrupan (Mozambike) egindako Eskualdeko Garapen Integralerako proiektua azpimarratu behar da. Mundukidek bultzatutako garapen prozesuen eredurik egokienetakoa da. 2001. urtean diseinatu zen eta hamar urteko iraupena izango du; aberastasun iturrien sorrera eta iturri horietara kooperatiben esparruko enpresa jarduera berrien sustapenaren bitartez eta nekazaritza familiar errentagarriagoaren bitartez iristeko aukera planteatzen du.

kooperatiba Rukullaktan, Ekuadorren; TOITA gizarte enpresen taldea Hararaen, Zimbawen; CIPA kooperatiba Evinanyong-en, Ekuatore Ginean; Jequetepeque proiektua Perun; Kuban eta Brasilen, Lurrik Gabeko Nekazaritzako Langileen Mugimendurekin (MST) batera. Elkar-lankidetzaren atalaren barnean, bestalde, esperientzia kooperatiboen trukea eta ezagutza sustatzen da, Ttuke eta Practicum Hegoa programen bitartez. Honelako programak, funtsean, Hego Amerikako elkarteekin batera garatu dira.



**“2005eko ekitaldian,
Mundukidek 1.096.412 euro
zuzendu zituen
hainbat programatarako”**



MUNDUKIDEREN MISIOA:

“Mundukide Fundazioak, kooperatibaren ikuspegitik, Hegoaldeko herrialdeetan ere elkartasunezko gure konpromisoa aurrera eramaten laguntzen du. Ikuspegi kooperatibo horretatik, gure estrategiak eta ekintzak milurteko honetako helburuen lorpenean integrazeari lehentasuna eman behar diogu; izan ere, ziur gaude kooperatibaren antolamendu formularen bitartez jendearen bizimodua hobetu egiten dela, beren baldintza ekonomikoak hobetuz eta elkarteei gizartean integratzen nahiz indartzen lagunduz”.

ULMA barnean, nola ikusten duzue gure balioen betetze maila? Nola hobetu daiteke?

Atal hau hobetzeko, gauza bat proposatu nahi duzugu: bidali atal honetan planteatuta ikusi nahi zenituzkeen gaiak edo galderak; begira@ulma.es



PILI KORTABARRIA
ULMA Orga Jasotzaileak
“Gizarte gaiei ez zaie daukaten garrantzia ematen”

Lehenengo, balio horiek zein diren benetan ba ote dakigun aztertu behar genuke. Ildo horretatik, bakoitzak bere ekarpen txoa egin behar luke, izan ere, denok dakigu balio horiek hortxe daudela, egunerokoan, baina ez gara balio horien aplikazioaz jabetzen. Kooperazio sarearen barnean “persona” da irudirik garrantzitsuena, baina hainbatetan ez dela aintzat hartzen sentitzen du. Lehiakortasuna handia da, eta hori ona da, hobetzen laguntzen baitigu horrek; baina indibidualismoa ere nabarmena da. Norberak gehiago inplikatu behar duela uste dut, baina organoek ere (zuzendaritzakoek, errektoreek...) horixe egin behar lukete, balio horien zentzua helarazteko eta langileengan guztien parte hartzea sustatzeko. Uste dut jendeak, edo gutxienez, kolektiboak pentsatzen duela gizarte gaiei ez zaiela duten garrantzia ematen.



GORKA MENDIGUREN
ULMA Agrícola

“Berrikuntzan eta lehiakortasunean, inbidiaz begiratzen ditugute ingurukoek”

Oro har, uste dut gure balioak nahiko ondo betetzen direla, neurri handiagoan edo txikiagoan, balio bakoitzaren arabera. Parte hartze mailari begiratzen badiogu, uste dut lortu nahi den betetze maila lortzen dela, kontseiluaren bidez, ohiko eta ezohiko batzarren bidez, informazioa emateko hitzaldien bidez eta departamentu barneko nahiz departamentuen arteko batzordeen bidez. Hobetu al daitekeen? Bai horixe. 15 minutu baino gutxiagoko kontseiluak eginez, batzordeen sistematizazioaren bidez, aurrez zehaztutako jarduera protokoloak erabiliz. Lehiakortasuna eta berrikuntza: arlo horretan, gure inguruko enpresek inbidiaz begiratzen digutela esan behar du. Produktu berriak, hobekuntzak eta merkatu berriak lantzen dira etengabe. I+G+B arloko inbertsioak modu sistematikoan egiten dira, ekitaldi guztietan. Oparaldietan, sortzen diren soberakinak giza eta finantza kapital handiagoak osatzera zuzenduz hobetu daiteke arlo hori. Kooperazioari dagokionez, ULMA Taldeak duen irudiari esker –aldi berean MCC Korporazioaren barnean sartzen da hau–, industria munduan pisua eta indarra izatea lortu du. Kooperatiben arteko eta bertako langile guztien arteko lankidetzaren emaitza da hori. Betetze maila hori nahiko begien bistakoa dela uste dut, eta hobetzeko bidea filosofia hori inoiz ez galtzeak emango duela.



JOSU IGARTUA
ULMA Construcción
“Batzuetan ahaztu egiten zaigu enpresa pertsona askoren elkargunea dela”

Gure balioek modu inplizituan erakunde berezi bat izatea adierazten dutela kontuan hartuta, ez dakit zenbateraino garen horren bereziak. Nik uste dut balio batzuk (bezeroarenganako arreta, nazioartekotzea...) ondo betetzen direla. Beste balio mota batzuetan, ordea, ez dakit ondo errotuta ote dauden, zalantzak ditut. Agian, azken urteotan izan dugun hazkundearen ondorioz, pertsonok eta enpresok elkarrengandik berezita gaudela sentitzen dugu. Dena den, balio batzuk ondo finkatzea garrantzi handikoa iruditzen zait, horrela, guztiok misio bera betetzera zuzendu gaitzen. Hobetzeko modu batzuk: uste dut ULMAko kideok enpresaren alde egin behar genukeena sentitzea ondo egongo litzakeela, baina, aldi berean, enpresak pertsonaren alde egin dezakeena ere kontuan hartu behar da. Askotan, ahaztu egiten zaigu enpresa pertsona askoren elkargunea dela, eta nahiago dugu pentsatu enpresaren alde baino pertsonen alde ari garela. Balioei garrantzi handiagoa emango bagenie eta balio horien inguruan prestakuntza handiagoa bagenu, gogobetetasun maila handitu egingo litzateke. Batzuetan iruditzen zaigu misioak, ikuspegiak eta balioek soilik iragarkien taulan ezartzeko balio dutela, eta ez luke horrela izan behar.



JOSE Mª BENGOA
ULMA Forja

“Kontsumismoak aurrera egin ahala, balioek indarra galtzen dute”

Balioen betetze mailak behera egin du nabarmen. Belaunaldien arteko aldaketarekin, norberaren balioetan hobera egin den neurrian (kontsumismoa) kooperatibaren balioetan behera egin dugula esango nuke. Argiago esango dut: gero eta indibidualistagoak gara, gero eta geurekioagoak, eta gero eta gutxiago parte hartzen dugu. Finean, norberaren negozioarekin (kooperatiba) gero eta erantzukizun txikiagoa hartzen dugu. Adibidez: *“ez da nire zeregina, ez dagokit niri, hori ez da nire lana, ez dago nire zerrendan, ni, ni eta ni.”* Hasi zuzendaritzatik eta, mailaz maila, talde osora zabaldu arte. Exekutiboak gehiago sentitu behar du kooperatiba, eta gutxiago begiratu behar die bere irabaziei; diruari, agintzen duena betetzeari... Profesionaltasun, heldutasun eta erantzukizun falta nabarmena dago, maila guztietan. Balio horiek guztiak helarazteko, gehiago hartu behar dugu kontuan lanean aspalditik ari den jendea. Funtsezkoak diren postuetan jende gaztea, esperientzia handirik gabekoa jartzea arriskugarria da, eta baita erantzukizun guztia beraiei ematea ere, ahalmen eta etorkizun handia ikusi arren.



AINARA AZKOITIA
ULMA Handling Systems

“Parte hartzea eta konpromisoa dira gehien estimatzen ditudan balioak”

Nire ikuspegitik, ULMAK eta, oro har, kooperatiben inguruneak aldarrikatzen dituen balioak betetzen dira, nahiz eta badakidan ez direla % 100ean betetzen. Nire inguru hurbilean, langileen parte hartzea eta konpromisoa dira gehien estimatzen ditudan balioak. Ildo horretatik, gure bezeroei zerbitzu egokia emateko langileen prestutasuna egunero-egunero sumatzen den balioa da, eta ez dut uste duen balioa ematen zaionik, ez behintzat, izan beharko lukeena. Balioen betetze maila areagotuko lukeen formula magikoetan ez dut sinesten nik. Niri ustez, bakoitzak bere lanean balioak garatzea erabaki pertsonala da, eta baita balio horien betetze maila balioestea ere. Bakoitzak bere ahaleginari zenbat eta balio handiagoa eman, handiagoa izango da langile bakoitzaren esku hartze maila, eta alderantziz.



FERNAN SANTAMARÍA
ULMA Hormigón Polímero

“Balioen inguruan nituen itxaropenak bete egin dira”

ULMA Hormigón Polímero negozioko langile eta kooperatibista naiz duela bi urtetik, eta alde horretatik, ezin dut iraganarekin alderatuta balio horien egungo egoera nolako den aztertzeko balioespenukin egin. Hala ere, hasieratik banuzkan kooperatibaren balioen eta oinarrien inguruan itxaropen batzuk, eta bete egin dira. Batzuetan balio horietatik urrundu egingo gara, noski; ez sistemak eta ez pertsonak ez gara perfektuak; baina badauzkagu zuzentzeko eta hobetzeko beharrezkoak diren bideak. Berrikuntza sustatzen den balio bat da, ez soilik antolamenduaren bidez gainera; kanpoko presioak eta lehiakortasunak, gero eta indar handiagoz, arlo hori sustatzera eta dinamizatzerara bultzatzen gaituzte. Kasu honetan, kanpoko presioak faktore pizgarri modura garrantzi handiko lekua betetzen du. Hala ere, beste balio batzuei, parte hartzeari eta kooperazioari, adibidez, modu negatiboan eragiten die gizarteak, gero eta gehiago jotzen baita indibidualismoaren, erosotasunaren eta emaitza azkarren bidetik. Horrek nahastu egin gaitzake, indartsu egiten gaituzten eta talde eta norbanako gisa mesede egiten diguten balioak ahuldu baititzake. Kooperatibaren balioak sustatzeko, funtsezkoak iruditzen zait kritika egin behar dugunean geure buruarekin zintzo eta zorrotz jokatzeko, geure burua laudatzen ibiltzea saihestuz; geure burua kritikatzeko kooperatibaren balioak indartzen lagunduko du. Helburu horretan oinarrituta, ULMA HP negozioan balioen betetze mailari buruzko gogoeta bat egiten ari gara, eta aukera hori ondo erabili behar dugu. Aldi berean, uste dut kooperatibaren balioak gizartearen eta giza ikuspegitik oinarri sakonak dituzten balioak direla, baina agian errazago eusten zaie balio horiei talde txikietan. Kooperatibaren balioak sustatzeko, uste dut gure ohiko lan taldeetatik babestu eta errespetatu egin behar ditugula, baita talde txikienetatik ere. Eremu bakoitzean lortzen dugun indar moralak kooperatibaren balioak erakunde osora zabaltzea indartuko du.



IÑIGO GARAI
ULMA Packaging

“Taldea oinarritutako alternatibak egon badaudela erakutsi dugu”

Kooperatibaren balioez hitz egitea gauzak egiteko modu batez hitz egitea da, adiskidetasun eta elkartasun ideiaetatik gertuko den modu batez aritzea. Elkarri laguntzea da, elkarrekin saiatzea eta egindako ahalegin horren emaitzak banatzea. Gaur egungo mundu globalizatu honetan, indibidualismoak eta norberaren arrakastak horrenbesteko garrantzia duten mundu honetan, kooperatiba batean lan egiteak jendeari indibidualismoaren aurrean taldean oinarritutako enpresa alternatibak badaudela erakustea esan nahi du. Eta kooperatiban oraindik hobetzeko alderdi asko badaude ere, uste dut sistema hau lan merkatuan ikusten ditugun alternatibak baino askoz solidarioagoa dela. Eman zaigun aberastasun handia eta enplegu segurtasuna gure aurreko belaunaldietatik datozkigu, eta uste dut ez garela horretaz jabetzen; belaunaldi haietan kooperatibaren balioek indar handia zuten, sakrifizio maila oso altua zen, eta horretaz jabetzeko, ez daukagu emaitzak ikusi besterik. ULMA n bertan, adibidez, bertako zaharrenekin hitz egiten duzunean, horrenbeste izerdirekin, ahaleginekin eta, batik bat, bat hartuta egin dutenaz harro eta pozik daudela igartzen zaie, oso garai zailak gauditu behar izan baitzituzten, agian kooperatiba izan ez balira gaudituko ez zituztenak, gaur egun guztion den ULMA honetara iritsi arte. Jarraitzeko eredu egoki bat utzi digute, eta uste dut gutariko bakoitza bere lanaz ondo arduratzen bada eta balioak betetzeraokan zuzen jokatzeko badu, ildo horretatik hobetzea lortuko dugula.



Kataberako meategiko bideak

Amabirginarriren bila



Aizkorriko mendizerraren hegaletan ustiatu ziren Kataberako meategiak, eta zinka egiteko kalamina eta blenda atera zituzten bertatik. Minerala eraldatzeko erabili ziren kaltzinazio-labeetatik abiatzen diren bide naturaletan barna ibiliko gara.

Biozkornako lepoaren azpian, Aloña-Aizkorri mendizerran, ustiatu ziren Kataberako meategi irekiak; meategi horiek Real Compañía Asturiana de Minas konpainiarenak ziren XIX. mendetik. Udanako gainean ekingo diogu bideari, ingeniariaren etxearen bestaldean mendatetik gora egiten duten bi mendi bideetatik, Oñatitik hurbilen dagoenetik gora eginez. Bidea balizez markatuta dago, GR bideen ikur zuri-gorriekin, eta ikur horiek bideari jarraitzen lagunduko digute. Maldan gora egin ondoren, izei eta pinu artean egingo dugu bidea, noizean behin ager daitezkeen beste bidexka batzuk atzean utziz. Tarte batez ibili ondoren, hartxintzarrezko mendi bide

batera iritsiko gara, Barrendiolako urtegitik datorren bidera hain zuzen ere; Kataberara joateko beste aukera bat da hori. Muinoaren gainean jada bertan behera utzitako Jarondoko artegitiko txabolak daude, eta horien gainean meategiak ikusiko ditugu. Aurrean, ondo markatutako mendi bide bat dago, malda handikoa, eta bide horrek eramango gaitu meategietara, meategietako eraikuntzen aztarnen inguruan sigi-sagaka. Hemen ingeniariaren etxea, han teleferikoaren dorreen oinarriak, beste muturrean hondakindegia. Erdian, bidezidorrak azkar egiten du gorantz, ondo markatutako diagonalean Biozkornako leporantz, Aizkorriko gailurra zatitzen duenerantz. Biozkorna harkaitzez jositako zelai handi bat da, Arriurdin eta Artzanburu gailurren artean. Harkaitz horietako batek aulki itxura du, eta horixe da hain zuzen ere Amabirginarrie. Arantzazuko Ama Birjinak, Urbiarantz zihoanean, bertan atsedean hartu zuela esaten da.



● **BIDAIATZEKO GIDA**

Irteera: Udanako mendatea, Oñati eta Legazpi artean.

Denbora: ordu bete Kataberaraino iristeko. Beste 30 minutu Biozkornako leporaino.

Aholkua: beste aukera bat Barrendiolako urtegiaren ertzetik, mendebaldetik irteten den bidetik, Kataberara igotzea da.

Informazioa: www.lenbur.com.

BISITA; Mirandaolako Burdinola

● Udanako mendatearen azpian, Legazpin dago Mirandaolako parkea, burdinaren ustiapen ikusgarria. Burdinolak igandero jartzen du martxan mailua (hilabeteko lehenengo igandean azarotik martxora bitartean). Haran berean, Burdinaren Ibilbideak beste burdinola baten aztarnak eta Brinkolako errota ikusteko aukera ematen digu.

> **profila**



Carmelo Bilbao

Oraingo honetan Carmelo Bilbaorekin hitz egin nahi izan dugu, duela gutxi arte ULMA Construcción negozioko gerente izandakoarekin, eta ULMari agur esan ondoren sortutako emozioei eta sentipenei buruz galdetu diogu.

Carmelo, etapa bat amaitu da... Oro har, zein balioespen egiten duzu ULMA Construcción negozioan egindako lanari buruz, Marketing zuzendari gisa hasi zinetetik? Oso balioespen positiboa, hainbat enpresatan lan egitea bezala izan da, neurria eta konplexutasuna kontuan hartuta. Gogoangarria izan da.

Negozioko gerentzian lan egitea erronka pertsonala izan zen... Proiektu haren asmo eta nahi guztiak bete dira, edo bidean zerbait gelditu dela uste duzu? Bai, bete dira, eta ondo bete gainera. Edozein arrazoiengatik gure ondotik alde egin zuten pertsonak gelditu dira bidean, baina ausardiak jokatu dugunok hasierako asmoak bete ditugu.

Gaur egun ULMA Construcción negozioa finkatuta dago merkatu espainiarrean, eta nazioartean ere lehen mailako bokazioa du; hori ezinezkoa izango zatekeen ondoan persona egokiak izan gabe... Enpresak, markak etab. esateko ezer ez duten erakundeak dira. Pertsonak hitz egiten dute, pertsonak entzuten dute, eta pertsonak arriskutzen dira. Talde honetako jendearengan ikusi dudana ilusioa, oro har, ikaragarri handia izan da.

Esan, zein proiektu berritan murgildu zara? Eraldakuntzarako enpresa siderurgikoak, BANDAS DE ACERO taldean txertatutakoak. Eskualdeko talde bat zuzentzea bezala da: elementu komuna altxairua da, baina negozioak eta enpresak autonomoak dira.

Amaitzeko, Carmelo, gaur egun duzun ezagutza kontuan hartuta, nola ikusten duzu ULMA Construcción negozioaren etorkizuna epe ertainean eta luzean? Nire ezagutza oso txikia da. Aldatzeko ideiak eta ilusioa bai, horietatik asko daukat. Baina bertan gelditzen direnek nik baino informazio hobea emango dizute. Bazkide inaktibo bat baino ez naiz orain.

Azkenik, agur esaten denean esker ona adierazi nahi izaten da baita ere; nor gogoratu nahiko zenuke une honetan? Etxeko guztiak, Jaione nire emaztea eta Xabi, Josu eta Itsaso seme-alabak, bidaiek eta nire falta pairatu izan behar baitituzte.

**EMAN ZURE
IRITZIA!
INKESTA**

Ohartuko zinetenez, 11. zenbakian atal eta gai berriak txertatu genituen aldizkarian, eta estilo aldaketa batzuk eta diseinuan ukitu batzuk egitera bultzatu gintuen horrek. Badakizue gure asmoa aldizkaria etengabe hobetzea dela. Horregatik, **gutxi barru inkesta labor bat jasoko duzue e-maillez, eta bertan aldizkariari eta atal eta estilo berriei buruzko balioespena egiteko eskatzen dizuegu. Bete ezazue inkesta eta bidali ondoko helbide elektronikora.**

Helbide elektronikorik ez duzuenok, aldizkarian aurkituko duzue inkesta; bete eta bidali zigiturik behar ez duen gutunazalean honako helbidera:

ULMA Taldea
Zerbitzu Zentralak
Otadui Pasealekua, 3 -
13 p.k.
20560 OÑATI
Erref.: Begira
E-maila: begira@ulma.es

Gainera, beti bezala, irekita daukazue iradokizunen postontzia, zuen iritzien zain; **begira@ulma.es**

ULMA Taldea
Zerbitzu Zentralak
Otadui Pasealekua, 3 -
13 p.k.
20560 OÑATI
Erref.: Begira
E-maila: begira@ulma.es

Eskerrik asko guztioi, eta goza dezazuela! Zorionak

ERRETIROA HARTU DUTENAK: ULMA Taldean 2006ko maiatzaren 1etik abuztuaren 31ra erretiroa hartu dutenak.



Felix Cortabarría



Jose M. Igartua



Agustín Etxezarreta



Enrique Zubia



Esteban Barandiaran



Javier Agirrebalzategi



Dario Lozano

Animatu, eta bidali zure argazki onenak:

Natura eta mendia





Begira aldizkariak naturari eta mendiari buruzko zuen argazki onenak bidaltzeko gonbita egiten dizue. Bidali naturari edo mendiari buruz dituzuen argazkiak. Jakingo duzuenez, irudi onenekin 2007. urteko korporazioaren egutegia egingo da. Gainera, jasotako argazki guztien artean hainbat opari zozketatuko dira. 2006ko irailaren 27ra arte bidali daitezke argazkiak, posta elektronikoz helbide honetara: begira@ulma.es edo ohiko posta zerbitzuaren bidez, helbide honetara:

ULMA – Zerbitzu Zentralak
Erref.: Begira
Otaui Pasealekua, 3 - 13 p.k.
20560 OÑATI

Orain arte 60 argazki baino gehiago jaso ditugu. Irudiak ULMA Taldeko inernetean ikus daitezke, Begira atalean.

EZAUGARRI TEKNIKOAK:

- Argazkiak zuri-beltzean edo koloretan.
- Argazkia. Digitala: JPG formatuan, bereizmen handikoa (300 ppp), neurri erreala.
- Paperean: neurri txikiena: 13x18 cm; eta handiena: 40 x 30 cm



animatu eta bidali
argazkia

Hona hemen
ULMAko
zure lankide
batzuek
bidalitako
argazkiak